

Larrun azpitik

Joseba Aurkenerena Barandiaran



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

JOSEBA AURKENERENA BARANDIARAN

Larrun azpitik

AURKIBIDEA

Aitzin-solasa

Agur Ataungo izarra!

Ahantzi zure kezkak!

Altzateko Jauna, noiz itzuliko?

Amalur baita gure etxea

Ama-lurraren iratzartzea

Amesten duen herria ez da nehoiz hilen

Apokalipsiaren tenorea

Ataungo jakintsua

Atea

Aztibegia. Xaho beti gogoan

Baiona

Betebeharra ala eskubideak?

Bidea

Bizitzaren galera

Bizitzaren udazkenean

Bizitzatik heriotzara

Donibane Lohizuneko arrantzalearen kantua

Eate indarka ari

Emazte libre

Erlea eta euskalduna

Euskal lorea

Euskal udaberriaren aiduru

Euskara

Gizon-emakumeen bide erratua

Gure seme-alabak

Haizearen ereta

Haritz hostoa

Hatuey eta Guarina

Hartza Donibane Lohizunen

Inexa Gaxen

Irrintzinak Done Jakue zubian

Iruñea

Itxialdia

Izarlandako bidea

Izurritearen gezurrak

Jaizkibel ene bizipenetan

Kataluniari bihotzez

Larrun

Larrun ez da urrun

Libre sortua

Lili Marleen

Maitea

Maite-grina

Mariren nahikaria

Mari zaiku kantari

1914ko gerla madarikatua

Nafarroako ikasleak

Olentzero Iruñean

Pausu Gaua Karrikaldia

Pepita Sein, Txenpeneko izarra

Perlaren kantua

Sorgin eta belargileak, ama-lurraren alabak

Suaren indarra

Sugaar

Tafalla

Tokiotik barna

Uhinen mugimendua

Ura eta bizia

Ura eta lehorra

Ur gaineko iratxoek kantua

Urrundik

Urtaroak Euskal Herrian

Utzi irteten ilargia

Xaia 100 urte

Ximiko

Gure poxpolina!

Zuhaitza

Aitzin-solasa

Urteak iragan dira, bata bestearen gibeletik, jadanik hirurogeita bost urte iragan zaizkit, bat ere konturatu gabe. Haur eta gazte urte luze haiek iraganeko kontuak dira eta oraingo urteak gero eta laburragoak bilakatzen ari zaizkit. Bizitza denboraldi ilauna egiten ari zait, hasiera eta amaiera hurbil dituen denboraldia. Ainitzetan nire bizitza etxeko loreen bizitzarekin aldera daitekeela dirudit. Bat-batean edertasunez beteak dira, kolorez eta usain onez mukurru, laster berriz, ihartzen hasten dira, edertasuna galtzen, eta halako batean hostoak erortzen zaizkio. Akabo lore ederra? Akabo lore eta usain onak! Denbora laburrak eraman du betiko lorearen bizia, haatik, ondo-ondoan beste lore bat zabaltzen hasia dela ikus daiteke. Bat hil orduko bestea sortu. Hauxe da denon bizitza, ama-lurraren kolko goxoan pizten, garatzen eta hiltzen dena.

Denbora da bizitzaren neurgailua, denbora da bizitza aldarazten duena, hasierarik eta bukaerarik gabeko dimentsioa. Baina denbora ez da neurri bera izaki guztiontzat. Ez, horixe! Ikusi besterik ez dugu, zein azkar hiltzen diren adiskide fideltzat ditugun zakurrak! Ez dira betiko, ezta gu ere! Baina gure mendiek hor jarraitzen dute denbora eternal horren lekuko eta jakile. Gure eskualdean Larrun mendia da horren adierazlerik onena, beti hodei-mugan isilik, zutik, zeru goia ukituz. Etxetik atera orduko, aitzinean dugu, atzo, gaur, betiro... bizitzaren lekuko mutua. Eta gu haren itzalean, haren babesean sortu, bizi eta hiltzen gara.

Horixe da, nire olerkietan azaltzen dena, bizitzaren gora-beherak, gizakion nahiak eta desirak, gure pasioak, Euskal Herri goxoa, ama-lurrarekiko atxikimendua, izadiaren ederra, eguzkia, ilargia eta izarrak, itsasoa, ibaiak eta errekek... horiek denak dira olerkigai, kantagai, aipagai... hemen nire olerki bilduma umil honetan; azken finean, Larrun mendiaren azpitik sentitua eta idatzia izan baita.

Agur Ataungo izarra!

Hodeietan barrena
doa izar ederra,
Euskal Herri utzita,
atearen beste aldera.
Hantxe ikusiko du
zain daukan ama,
hantxe ikusiko du
Anttoni gure amona.

Haizeek daramate
gure Edurne aurrera
eta izarrek diote
zein den norabidea.
Hantxe ikusiko du
zain daukan ama,
hantxe ikusiko du
Anttoni gure amona.

Urruneko ahotsek
oroitza dakarkigute
eta hango oihartzunek
errepikatzen dute:
Laster ikusiko du
zain daukan ama,
laster ikusiko du
Anttoni gure amona.

Elur garaian joan da
Ataungo izar ederra
eta utzi ditu ludian
bihotz tristen negarra.
Ez du inoiz utziko
maite duen sendia,
ez du inoiz utziko
gure Euskal Herria.

Jadanik iritsi da
atearen beste aldera
ta handik ibiliko da
kantari eta alaia.
Ez du inoiz utziko
maite duen sendia,
ez du inoiz utziko
gure Euskal Herria.

Ez du inoiz utziko
maite duen sendia,
ez du inoiz utziko
gure Euskal Herria.

Ahantzi zure kezkak!

Ahantzi zure kezkak
eta bihotz garbikoa izan,
irudirik barnean ez duen
ispilua bezain garbia.
Ispilu garbirik nahi baduzu,
begira ezazu zure burua,
begira ezazu egia,
ispiluan islatzen den bezala,
inolako lotsarik gabe.

Metala findu daiteke
ispilu baten itxura hartu arte.
Bihotza ere findu al daiteke?
Bihotza eta ispilua,
antzekoak badira ere,
honetan dira aldentzen:
bihotzak sekretuak
ditu ezkututzen,
ispiluak ez ditu bere egiten.

Eternitatearen bidez
ederra du erakusten.
Haren itxura ederra!
Ezar ezazu ispilu bat
ez izanaren bakardadean,
haren aurpegiaren aurrean,
eta goza ezazu,
islatzen den
haren edertasunaz.

Hura da ezagutzaile eta ezagutua,
begiratzaile eta begiratua,
haren begia da
unibertsoaren begirale bakarra.
Edertasuna begira ari denean,
amodioa ere bertan dago;
edertasunak bere masail gorritua
erakusten duenean
amodioak sua pizten du gar horrekin.

Edertasuna gaueko ibar ilunetan delarik,
amodioa dator eta adatsetan
trabaturiko bihotza du topatzen.
Edertasuna eta amodioa
gorputza eta arima dira.
Edertasuna mehategia da,
amodioa harbitxia.
Hastapenetatik bat eginik izan dira,
elkarren ondoan, urratsez urrats.

Rumi

Altzateko Jauna, noiz itzuliko?

(doinua: Muñagorriren bertsoak)

Ez zaigu hil oraindik
euskaldun odola,
oraino da pizturik
baina hola-hola,
Larrun mendi zaharrear,
hango xendra-bideetan,
dabil gure gizona
leize-zulo eta oihanetan.

Eskuan atxiki du
Mariren igitaia,
bihotzean zaio piztu
libertate usaia.
Zain dago itzultzeko
euskal herrietara,
prest dago ekartzeko
askatasuna gure artera.

Kanpotik etorri zen
Kixmiren hazia,
odolez erein zuten
ukatzen bizia.
Itzultzeko tenorea da
Mariren erresuma,
Hodej, Inguma, Sugaar,
zain dago euskaldunen ama.

Urreak eta sosak
agintari latza,
herriak ta herritarrak
haien kaka putza.
Jaiki gaitezen denok
kate horiek hausteko,
bildu gaitezen behingoz
ama-lurra, ama-lurra esnatzeko.

Larrungo gailurretik
Bera ta Urruñara,
begira dago hortik
Sara ta Azkainera.
Turutat deitzen diote
Alzateko Jaunari,
sugarra ekar diezaion
mundu ustel, mundu ustel honi.

Itxaropena hor da
denon bihotzetan,
piztua baita sua
Larrungo oihanetan.
Laster zabalduko da
Euskal Herri osoan,
Mariren lege zaharra
bere indar, bere indar goxoan.

Akabo arrotz legeak
ta erdara karrikan,
euskara izanen da
nagusi herrian.
Horrela nahi du Marik
ta horrela izan dadin,
euskaraz egin bedi
denok behar dugu indarra egin.

Larrungo gailurretik
jaitsiko da argia,
pozik izanen dira
Eki ta Ilargia.
Itzul dakigun behingoz
euskal sinesmen zaharra,
bera izan bekigu
bizimodu berri baten garra.

Ama-lurra daukagu
bazterrean utzia,
ahantzia baitugu
arbasoen nahia.
Piztu dezagun sua
bide eta mendietan,
kanta dezagun jada
Euskal Herriko bazter guztietan.

Suzko metak garretan,
fandango alaietan,
sorginak ari dira
kantu eta dantzetan.
Laminen irrintzia
libre dabil mendietan,
Mariren igitaia
berriz euskaldunen eskuetan.

Amalur baita gure etxea

Hodei azpiko zolan,
euskal lur zoragarrian,
Lapurdiko Urruña ederrean,
haize, euri eta ekaitzen aterpe
zaitugu Amalur-baita,
gure etxe maitagarria.

Untxin errekaren bazterretan,
itsasoa hurbil duzu, labarretan,
egutera alde batetik, laiotza bestetik.
Zuhaitz handien babes eta gerizpean
zaitugu beti alai, kolorez zuri-gorri,
gure etxe, kabi eta ametsen sorlekua.

Zure barruan hazi dugu sendia,
emaztea, senarra eta bi seme lardenak.
Zuk eman diguzu itzal, babes eta aterpe,
zuk bideratu dituzu gure nahiak,
zuk ezagutu dituzu gure penak eta pozak,
zuk egin gaituzu eta zuk dituzu gidatu gure ametsak.

Enarak hegaka dabilta
udaberriko arrats ederretan
teilatu gaineko zeruak zeharkatuz,
alde batetik bestera airoski jostatuz.
Azpian gaude gu, gure etxean,
bizitza bideratzen, etorkizuna josten.

Epela zaitugu
neguko gau hotzetan,
freskagarria udako bero sapetan,
gotorleku galernaren erasoetan,
gatzelu ziur haizeak ufatzen duen egunetan,
tenplua gure tristura eta nahigabeetan,
bihotz-kabi gure sendiaren bideetan.

Ama-lurraren iratzartzea

Amalur guria,
euskaldunon kabia,
iratzar hadi!
Bedatsea jin bedi!
Gure bihotzetan
dakigun hazi!

Gure bihotza
izan dadin
bizi-hazi
eta bozkario-lili!

Amesten duen herria ez da nehoiz hilen

Horrelako zerbait erran zuen noizbait olerkariak

eta egia dela aitortu behar diogu.

Euskaldunok ameslariak gira,

lana, borroka eta ametsak uztartzen

betiro jakin izan ditugunak.

Horregatik gaude hemen bizirik,

eta bizi nahian.

Urruñan ere, egun oroz amesten dugu

ukatu diguten askatasunaz,

baztertu diguten mintzairaz,

gure nortasun kolpatuaz,

lurraren garestitze ikaragarriaz,

gure gazteendako etorkizun hitsaz...

eta amesten jarraituko dugu,

ametsak errealitate bihur daitezen,

gure herrian goxo eta libre bizi gaitezen,

laborariak laborari, langileak langile

eta gazteak etorkizun duin baten jabe.

Ez dugu negarrik egiten,

ez gira alferrikako malkoetan itotzen,

ez dugu gure porrota kantatzen,

ez ditugu hil-ezkilak astintzen...

amets egiten dugu,

amestutakoa betetzen saiatzen gira,

une oroz, gaur eta beti, egun eta gau,

eta amets egiten dugulako,

ametsi bidea zabaltzen diegulako

badakigu utopia guztiak gaitzen.

Gaurko ametsa biharko errealitatea,
gaurko ahaleginak biharko ahalbideak,
eta gaurko sufrikarioak biharko garaipena
izanen dira.

Urruñak nahi du bizi, nahi du herri bizia izan,
zahar eta gazte loriotsuen herria,
akabo zapalketa!

akabo lur eta etxe espekulazioa!

akabo frantseste politika sistematikoa!

akabo birus eta izurrite gaiztoak!

akabo euskal presoak arrotz kartzeletan!

Amets egin dezagun gaur,

kateak hautsi ditzagun

eta garai dezagun bihar!!!

Hala bada, hala bedi!!!

Apokalipsiaren tenorea

1

Heldu da! Jadanik hemen dago,
eta maleruski ez du atzera egiterik.

Gizateriaren harrokeriak
muga guztiak ditu gainditu,
hilketak, txikizioak,
pozoinketak eta basa ustiapenak
dira hondamendi handiaren
eragile zuzenak.

Gizateriaren diruzalekeriak
bultzatu gaitu horretara,
amildu gaitu zulora.

2

Heldu da! Jadanik hemen dago
eta maleruski ez du atzera egiterik.

Gure izarbela erail dugu,
akitu ditugu lurraren iturriak,
xahutu ditugu izadiaren baliabideak,
agortu ditugu jan eta edatekoak,
pozoindu ditugu ibai eta itsasoak,
animaliak, zuhaitzak eta landareak.

Gure izarbela erail dugu,
diru-nahiak bultzatu gaitu horretara,
diru-nahiak amildu gaitu zulora.

3

Heldu da! Jadanik hemen dago
eta maleruski ez du atzera egiterik.

Herio hodeiak zabaldu dira zeru beltzean,
zaldun beltzek herio turutak jo dituzte,
jainko-jainkosa guztiek betiko gaituzte abandonatu,
lurra eta itsasoa mendeku bila dabilta,
poloetako izotz eternalak urtzen hasiak dira,
eritasunak, izurriteak, kutsadura nonahi gure artean.

Herio hodeiak zabaldu dira zeru beltzean,
sumendiak orroka eta laba gorria jaurtitzeko prest,
apokalipsiaren tenorea da, Balbek gaitu eraman nahi.

Heldu da! Jadanik hemen dago
eta maleruski ez dugu ihes egiterik.

Ataungo jakintsua

1

Txikitako ametsetan,
baserriko beheko suan,
amonaren kontakizunetan,
Ataun beti agerian.
Beti izan zara niretzat
jatorri eta iturria.
Jentilen zulo, sorgin harria,
Torto eta laminak
izan ditut beti bidelagun,
bizitza oso-osoan.

2

Mendi arteko bide estua,
bide luze-luze-luzea,
baserriz beteriko auzategiak,
belar-metak eta txirrikak,
euskara goxo eta sendoa
ataundarren solasetan,
behi marruak eta ardi balakak,
euria, ekaitza, txingorra
elur zuriz jantzitako neguetan,
mitoen iturria gure gogoetan.

3

Ataunen izan dira beti
artzainak, baserritarrak,
arotzak eta errementariak,
kontrabandistak ere ugariak izan dira.
Horien artean, istorio eta ipuinetan,
Muru, Torto eta jentilak,
sorginak eta laminak,
Atarrabi eta Mikelats anaiak,
eta zeru gorenetan barrena
Mari eta bere suzko gurdia.

4

Aitona eta amona zaharrek
beti pizturik zuten sua
haur eta gazte guztien artean
erein zedin bizi-hazia.
Mende luzetan horrela egin dute
ataundarrek beti gartsu eta leial,
apaiz txiki bat horien guztien artean
arrunt nabarmendu zen afera horretan,
ospetsua dugu Euskal Herri osoan,
On Joxemiel Barandiaran.

Atea

Sortzeko zorian nintzela

atea zeharkatu nuen

eta nintzen mundu honetara etorri.

Aita eta ama, amona

nituen ezagutu,

pozaren pozez ziren denak.

Printze ttikia nintzela

pentsatu nuen nik orduan.

Urteak igaro ahala

bizimodua zaildu zitzaidan.

Zenbat akats! zenbat bide oker!

zenbat jokaera hits! zenbat jarrera ustel!

izan ditut nire bidean.

Erratu naiz, behin eta berriz,

Izarrak ez ditut beti alde izan,

eta denok bezala,

aitzina egin behar izan dut.

Nekatuta, unatuta, akituta

nago, nauzue,

ez dut bide honetan luzaz jarraitu nahi.

Ezerk ez du merezi,

Nik neuk ere ez dut deus merezi.

Uste dut ate hori

berriz zeharkatzeko tenorea

hurbiltzen ari zaidala.

Atearen beste aldean,

Aita eta ama, amona, niri begira,

ene aiduru, esperoan ditut, nire zain.

Zabal iezadazue atea,

pittaka-pittaka, emeki-emeki,

zuen aldera iragan nahi dut eta,

ene ibilaldi okerra betiko buka dadin,

sortzean egin nuen akatsa

betiko zuzen dadin.

Biziak herio du zor.

Aztibegia. Xaho beti gogoan

1

Bortu gorenetan,
Xiberoko gailur handienetan,
hegaka dabil belatza,
hodei zurien pare,
ekitik gero eta gertuago.
Hegaldi azkarra,
hegaldi ederra,
mendi elurtuen gainetik,
ibar musker eta hezeetatik gaindi.
Xiberoa bizirik dago oraino.

2

Etxe eta oletako tximinietatik
ke-hats zuria airatzen da,
barne berotasun baten seinale,
zeruetako hodeiekin bat eginez.
Mailuen tiriki-trauki errepikakorra,
artzainen xikito alegera eta lizunak,
kabalen balaka ozena
eta zaldien irrintzinak
xiberotar kantuen oihartzunekin
bortu mazeletan dira nahasten.

3

Hau da Xiberoa, atzokoa eta gaurkoa,
horrelakoa zen Agosti Xahoren garaian.
Atarratzeko aztiak belatz begiez zuen ikusi,
azti begiez zuen iragarri eta hedatu.
Atarraztarrak itzal handia zuen
eta itzal handiaz bizi izan zen,
itzal handiaz zuen idatzi
Xiberoa beti goratuz eta laidatuz,
Euskal Herri osoa kantatuz,
euskaldunen gero askea aldarrikatuz.

4

Parisen ere bazituen sona eta ospea,
beti euskara, euskaldunak eta Euskal Herria
izan ziren bere bizitzaren lema eta norantza.
Hegan egin zezakeen arrotz lurretan barna,
bazituen horretarako jakitate eta fama,
baina nahiago izan zuen Xiberoko herri eta bortuetan.
Hegoaldean matxinada zen garaian
Lekunberrira joan zen Zumalakarregi bila
eta harekin euskal norabide askeaz mintzatu.
Horrela idatzi zuen, bederen, geroago.

5

Ametsak, nahiak, iragarpenak
zituen maisukiro zabaldu,
euskaldunen Herria zuen bihotzez maitatu,
euskararen jatorri iluna zuen kemenaz bilatu,
Herri zahar hau nahi zuen askatasunerantz gidatu,
euskal kultura nahi zuen sendotu eta loratu,
hodeietaraino zuen abilki hegaldatu,
belatzaren hegalez zen bortu gorenetan paseatu,
azti begiez zuen gure independentzia aldarrikatu,
horregatik behar dugu Xaho betiko laudatu.

Baiona

1

Errobi eta Aturri ibaien lotunean,
itsasotik gertu, baina halaber urrunean,
euskal lurrak bukatzen diren ertzean,
gaskoi anai-arrebekin besarkadan,
zubi ainitzen gainean, beti ametsetan.

Hortxe dugu Baiona,
lapurtarren hiri handia.

2

Lapurdiko hiri nagusia,
baita Iparralde osokoa ere.
Euskarak egin du bertan habia.
Garai bateko kortsarioen ontziak
gaueko ilunetan dira portura hurbiltzen.

Hortxe dugu Baiona,
lapurtarren hiri ederra.

3

Zure bestak ospetsuak dira

Euskal Herri osoan eta atzerrian,

zuri-gorritz denok jantziak,

betetzen ditugu zure bazter guztiak,

kantuz, bertsoz, bozkarioz eta dantzaz.

Hortxe dugu Baiona,

lapurtarren hiri alaia.

4

Garai berriak heldu dira,

hil ala biziko erronkan,

pilota partida batean jokatuko dugu

Iparraldeko euskaldunen norabidea.

Bizi nahi dugu eta gara biziko,

euskaldun bezala, alegerak.

Hortxe da gure Baiona,

euskaldunen bizinahiaren geroa.

Betebeharra ala eskubideak?

Erremin handia baretu ondoren,
herra pixar bat gelditzen bada,
nola izan gintezke pozik?

Jakintsuak bere betebeharrak
ditu burutzen
eta ez dio nehorri deus eskatzen.

Erremin handia baretu ondoren,
herra pixar bat gelditzen bada,
nola izan gintezke pozik?

Horrela bada, bizia duena
bere betebeharrak da mugatzen
eta bizirik ez duenak
bere eskubideak ditu mugatzen.

Erremin handia baretu ondoren,
herra pixar bat gelditzen bada,
nola izan gintezke pozik?

Bidea

Gazteei zuzenduriko gogoetak

Gaztea bazara, jakin behar duzu
bizitzak minutuz minutu
ihes egiten dizula
eta ezin duzula supermerkatuara joan
bizitza erostera.
Orduan, borroka zaitetz bizitza bizitzeko,
bizitzari balorea emateko.

Horixe da gizakion bizitza
eta gainerakoena bereizten duena.
Zuk, neurri batez bederen,
zure bizitzaren norabidea
bidera dezakezu;
eta erlatiboa bada ere,
zuk bizitzaren norabidea
alde batera edo bestera
zuzen dezakezu.

Zu ez zara landareak bezalako,
horiek behin sortu zirelako bizi baitira.
Jairoz geroztik zure bizitza
balorez eta edukiz bete dezakezu,
edo bestela zure bizitza noraezean utzi
merkatuak eros diezazun.
Horrela bizitza osoa pasatuko duzu
diru-txartelaz ordainduz,
eta trasteak erosiz.

Eta azkenean, aurrera jo ahala,
ni bezalako zaharra izanen zara,
erreumatismoz betea.
Lumatu zara, bai!
eta zer egin duzu mundu honetan?

Baina amets bat izan baduzu,
itxaropen baten alde borrokatu bazara
eta besteei amets hori helarazten
bazara ahalegindu,
agian horren oihartzuna
bizirik ibiliko da
mendi eta itsasoetan barrena.

Oroitzapen horrek
edozein monumentuk, edozein liburuk,
edozein ereserkik eta edozein olerkik
baino ainitzez gehiago balio du.
Bai, horrela, giza itxaropena
belaunaldi berrietan
ari da gauzatzen.

Lagunak! adiskideak!
Ezerk ez du balio bizitzak baino gehiago.
Borroka zaitetze bizitzaren alde!
Borroka zaitetze zoriontasunaren alde!
Zoriontasuna bizitzari norabidea ematea baita.
Ez utzi bizitza ebatsi diezazuten!
Eta horretarako ez dago errezetarik,
kontzientzian estekaturik baitaukagu.
Adoretsua bazara,
jaioz geroztik eskura daukazun aukera,
sortuz geroztik aitzinean duzun miraria,
zuhurtziaz balia ezazu!

Horra hor, orain, gazteei
ematen diedan aholkua.
Ezinezkoa lor daiteke, baina kostata,
eta galtzaileak dira bakar-bakarrik
besoak jaisten dituztenak,
amore ematen dutenak.

Bizitzak hamaika oztopo jar diezazkizuke,
maitasunean, lanean, zure pentsamenduen abenturan,
atzeman nahi dituzun ametsetan...
baina zuk indarra duzu, indartsua zara,
behin eta berriz, hamaika aldiz,
hegan egiteko,
eroriz gero, berriro altxatzeko.
eta gauzak okertuz gero, berriro hutsetik hasteko,
garrantzitsuena bidea baita.
Ez dago helmugarik,
ez dago garaipen-arkurik,
ez dago gure zain dagoen paradisuurik.
Guduan hil ondoren, nehork ez zaitu
ohorez eta pasioz errezibituko.
Ez! Hil zara, eta kitto!
Baina bestelako jarrera bada,
bizitzaz arrunt eta une oroz gozatzea,
bizitza maitatzea edozein momentu eta egoeratan,
bizitzaren alde ahalegintzea eta borrokatzea.

Bizitza ez da bakarrik
besteengandik jasotzea,
besteei ematea ere bada.
Beti, nahiz eta eri izan,
nahiz eta ataka estuetan ibili,
badugu besteei zerbait emateko,
beti badugu zerbait besteei eskaintzeko.

Jose Mujika
Uruguaiako lehendakaria, 2010-2015

Bizitzaren galera

Bizitza modu askotan gal daiteke,
besteengan ikusten dugun bizitza
inbidiatzen eta gure egin nahi izaten dugunean,
gure bizitza gutxiesten dugunean,
besteen akatsak, behin eta berriz, kritikatzten ditugunean,
edota gureak ikusteko eta
zuzentzeko ahalmenik ez dugunean,
gure porrotaz negar malkoak isurtzen ditugunean,
garaipena atzemateko irtenbiderik bilatzen ez dugunean...

Bizitza galtzen dugu
bekaitzaren sareetan erortzen garenean,
zulotik ateratzeko ahaleginik egiten ez dugunean,
gaizki hartutako bidetik itsu-mitsu jarraitzen dugunean,
autokritika egiteko gauza ez garenean,
egoera txarrak gainditzeko gogoetari ekiten ez diogunean...

Bizitza galtzen dugu
itsasoaren mugagabetasunaren aitzinean
harritzen ez garenean,
erreken kantu ederraz gure belarriak liluratzen ez direnean,
lilien edertasunaz hunkitzen ez garenean,
txorien kantuaz gozatzen ez dakigunean.

Bai, bizitza galtzen dugu
gauza eta pertsona orotan
alde txarrak soilik ikusten ditugunean,
gure inguruan dauden gauza eta pertsona on eta goxoak
maitatzen ez ditugunean...

Ez, bizitza ez dugu galtzen
azken hatsa ematen dugunean,
baizik eta zoriontsu izateari uko egiten diogunean.

Bizitzaren udazkenean

1

Udaberri aro goxoan,
txoriak dira kantuan ari,
zuhaitz kabi ta adaxketan,
eguzki gazte gorri,
gaua izarrez zuri,
eguraldi ederrari,
eguraldi ederrari.

Kimu berriak nonahi,
bide luzeari ekin nahi,
horixe da udaberrian
pizten den legeari
egiten dioten abegi
on eta beroa,
on eta beroa.

Gazteak dira gazteak
Atarrabi eta Mikelats,
bizitzaren ederrena
egiteko dute oraindik,
elkarrekin beti,
uberan eta ildoan,
uberan eta ildoan.

Bazterrak korritu dituzte,
alde batetik bestera,
mendi, errekek eta jai
jai gazte alegerak,
bedatseari beti deika,
udaberri giroan,
udaberri giroan.

2

Lili koloretsu ederrak
udaberrian sortuak,
heldu dirade udaran,
bideak aldenduz,
bizimoldeak hartuz,
uda aro gorian,
uda aro gorian.

Udako beroak ekarri
dizkigu fruitu eta hegali,
kendu dizkigu bie
udaberriko frexkura,
bedatseko hats hura,
bero sargorian,
bero sargorian.

Eki indartsua ortzian,
gaueko zohardi argian,
bizitzak hola eskaturik,
bide berriak harturik,
badatoz, badoaz,
bidegurutzean,
bidegurutzean.

Eta udagoiengan,
eguzki dugu goi-goian,
bizia aitzina doa,
kimu berriak sortuak,
bide berriak urratuak,
nahi zaharrak doatzi,
nahi zaharrak doatzi.

3

Udazkeneko lore,
udazken kolore,
dena horiz eta gorriz,
ihartu zaigu egarriz,
bizia doakigu arin,
fite, azkar ta umilki,
ibilki eta ibilki,
ibilki eta ibilki.

Hostoak dira erori,
orriak zaizkigu jausi,
biloa ere eskas ari,
buruan eta gogoan,
urruntzen zaigu abilki,
oroitzapen urri,
oroitzapen urri.

Laneko afera amaituz,
egunerokoa lasaituz,
bihotza zait laxatu,
gogoan zaizkit piztu,
udaberriko ibilerak,
besta eta kantuan adi,
besta eta kantuan adi.

Bizitzaren baloreak,
asmo eta nahi suharrak,
guk sortzen ditugun beharrak,
eromenezko bidean
sartu gaituzte agian,
ai udaberri zaharra!
ai udaberri zaharra!

4

laz, aurten eta geurtz
egunak doaz hegaka,
urteak ere saldoka,
eta negua zain dugu,
gure zain eta aiduru,
hori ere jinen zaigu,
hori ere jinen zaigu.

Leioa dago zabalik,
segida emanaz larrazkenari,
amaiera eskainiz biziari,
gure asmo eta nahikariei,
negua daukagu zain,
oro hotz eta elur,
oro hotz eta elur.

Atxiki nahi diot orainari,
udazken hori-gorriari,
hosto gabeko oihanei,
amaigabeko bideari,
oraintxe bizi nadin,
negua urrun dadin,
negua urrun dadin.

Baina etorri, da etorriko,
ez da geldirik egongo,
gurpila ez da moztuko,
ez orain eta ez gero,
bizi-mina denez gero,
egun, arrats, gauero,
egun, arrats, gauero.

Bizitza doa azkarregi,
aroak eskas dira ari,
eta negua hurbilegi,
hotz, elur eta euri,
teilatuak dira zuri.
oroitzapenez urri,
oroitzapenez beti.

Bizitzatik heriotzara

Bizia irteera da, heriotza sarrera,
hamarretik hiru biziaren aldeko dira,
hamarretik hiru heriotzaren aldeko dira,
hamarretik bertze hiruak dira
bizitzean heriotzara hurbiltzen direnak.

Zer dela eta hori?
Haien bizia luzatu nahian dira, luzatu nahian.
Sarritan entzun dut bizitzen dakiena
munduan zehar dabilela
errinozeroekin edota tigreekin topatu gabe.

Armada du zeharkatzen,
Iskiluak edota gerla-gurdiak saihestu gabe.

Harengan errinozeroak ez du xerkatzen
adarra non sartu,
ezta tigreak bere hatzaparrez
nondik heldu ere.

Iskiluak ez du xerkatzen
haren sastada non eman.
Zergatik?
Ez duelakoz Balbek hartzen ahal duen
neholako alderik.

Donibane Lohizuneko arrantzalearen kantua

doinua: Soy de Santurce

Tirikitrauki,
hiru ta lau zazpi,
itsasoa haserre dago
eta olatuak dakarzki.

Tirikitrauki,
hiru ta lau zazpi,
itsasoa haserre dago
eta olatuak dakarzki.

Errepika:
Ababor,
ababor, istribor.
istribor, ababor,
branka ta txopa.
Ababor,
ababor, istribor.
istribor, ababor,
branka ta txopa.

1

Kantuz badoa
nere mezua,
zuretzat baitaukat
nere amodiua.

2

Itsasoa da
gure aberria,
arrantzaleok dugun
bizitoki berria.

3

Donibaneko
neskatxa maitia,
zu zira ene bihotzeko
azukre koxkor ta ezitia.

4

Zu zira Maite
zeruko izarra,
bihotzez maite zaitut
itsasoko nire langarra.

5

Ontzia doa
Donibane aldera,
haizeak puztuz oihalak,
badoa herriko portura.

6

Urrun bada ere,
ikusten dut herria,
han zutik dago Maite
agurtzen, eskuan du zapia.

Errepika:

Ababor,
ababor, istribor.
istribor, ababor,
branka ta txopa.
Ababor,
ababor, istribor.
istribor, ababor,
branka ta txopa.

Eate indarka ari

1

Eate, haizete, ufate,
larre, pentze, oihan eta mendate,
haize ufatzaile, hostoen zulo eta basarte,
lurra orrazten duen zirimola date.

2

Eate, haizete, ufate,
latsa, erreka, ibai eta uharte,
beti ufaka dabil eta dabilke, ote,
zahar gure artean, gaurkoan gazte.

3

Eate, haizete, ufate,
indarka ari zaigu, teilatu kalte!
egun, gaur, hil eta urte,
astintzen ditu, haize gerrate!

4

Eate, haizete, ufate,
Ataun, Zerain, Arakil eta Uharte,
Urruña, Azkaine, Getaria eta Bidarte,
Tutera, Korella, Ablitas eta Murtxante.

5

Eate, haizete, ufate,
on emaile, larrazkenaren mugante,
kalte eta samin ororen gizarte,
gero hobearen bizi aldarte.

6

Eate, haizete, ufate,

Eibar, Elgoibar, Markina eta Arrate,

bere baitan biltzen ditu amaitze eta haste,

igartzen digun geroaren ate.

Emazte libre

1

Zuhaitz gazte eta lerdan,
belargile zela, omen,
aitak etxetik bidali zuen,
lili eder, bihotzez goien.

2

Hendaiara bizitzera zen joan,
bizimodu berria bilatzen zuen han.
Urtubiako jaunak atxiloturikan,
gero borreroek hebaindu zuten ziegan.

3

Geroztik pasatu zen Irunera,
geroxeago ezkondu zen Hondarribira,
han ere bekaitzak eta herrak jira-biran,
sorgina zela zioten eta zuten hartu begi-miran.

4

Epaiketa baten zain zela,
torturatu zuten, arraio eta kandela!
Errugabe zelakoan libratu zuten kalera,
eta gabarra batean itzularazi Hendaiara.

5

Sortzez Bastidako alaba zen,
igorritz geroztik arrastorik ez, ez han, ez hemen.
belargile, sorgin, orain eta lehen,
zuhaitz eder, emazte libre, Inexa Gaxen.

Erlea eta euskalduna

Doinua: Zibilek esan naute

1

Bedatsean hor dabil

lozez lore beti,

hegalka ta lanean

airosa ta egoki.

Zurrunbaz mintzatzen zaigu

loreei eta guri,

erlea da bizkorra,

langile hegalari.

2

Euskal sinesmenetan

beti dugu aipatu,

erlea gure artean

baitugu maitatu.

Hil ta geroko bidea

artez du zuzendu,

erlea da guretzat

lagun ta makulu.

3

Gure azken hatsetan,

herio bidaian,

erleek badakite

ortzadar bidean

zein den gure azken urratsa

eman beharreko usaian,

erleek badakite

irakurtzen bizian.

4

Euskalduna eta erlea

elkarrekin beti,

naturak egindako

lagunak izanki.

Bizitza eta heriotzaren,

bien arteko zubi,

hasiera eta amaiera

zuhur lotzen, baiki!

Euskal lorea

Euskal Herria ez da geografia kontu hutsa,
bertan bizi garen gizon-emakumeok baizik,
bere historia duen Herria;
eta historia hau zahar-zaharra da,
Europako zaharrena,
kontinente osoan ez da beste etnia bat
horrelako historia zaharrik duena.

Lorategietan badira
era eta kolore ainitzetako loreak,
eta gu, euskaldunok,
lore horietako bat gara,
gainerako guztiek bezala,
bizitzeko eskubidea duen lorea.

Horixe da euskaldunon ardura.
Guk ez dugu inongo lorea
mozteko eskatzen,
gurea ere bizitzen
utz dezaten baizik.

Horixe da euskaldunok
eskatzen duguna,
ez gehiago eta ez guttiago.

Joxemiel Barandiaranen gogoeta.

Euskal udaberriaren aiduru

Haurra nintzela jakin nuen, nire amonak erranik,
zein negu ilunetan bizi ginen euskaldunok,
euskara debekatuta, lur azpira kondenatuta,
gure izatea erdi ahaztuta, gure historia baztertuta,
eta euskaldunon askatasun oihua
zapalketaz, tiroz eta odolez isilduta.

Giro horretan hezi ninduten,
ukazioan egin nintzen nerabe,
dena zen Espainia, Franco eta hamaika espantu,
gure euskalduntasuna etxeko sekretu eta kontu,
isilpean gorde beharreko sugar gorde eta ezkutu.

Amonak eman zidan Euskal Herriaren berri,
berak bereizi zizkidan atzerri eta aberri,
berak erakutsi zidan euskara maitatzen
eta euskaldunen askatasuna goxoki amesten.

Amak ere horretara ninduen hauspotu
eta euskaraz ongi ikas nezan bideratu,
sakitako eskola zidan bilatu,
tamalez, bospasei hiletan zen hura bukatu,
irakaslea preso hartu baitzuten eta luzerako ziegan sartu.

Ikastaldi laburra baina emankor eta naroa,
euskararen hazia nigan betiko baitzen ernaldu,
geroztik euskararen bideetan barna ibili naiz beti,
amak eta amonak erakutsi bideari natzaio betiko lotu.

Nire baitan dira ordutik Ataungo amonaren ipuinak,
Mari eta Tartalo, sorginak eta laminak,
Basajaun, Sugaar, Ilargi, Eguzki eta Anbotoko Dama.
Amonak eraman ninduen lehen aldiz Olentzero ikustera,
hura zen gaueko sua, magia eta beldurra!
San Joan bezperako su-metetan nituen ezagutu
gure arbaso zaharren txinparta eta pindarrak.
Pittaka-pittaka gure gizon-emakumeen izenak
zitzaizkidan etorri gogora,
gure ipuin, istorio eta gertaerak,
espainol eta frantses eskoletan erakusten ez zituztenak,
edo lohiez zikinduta, ezinbestean, aipatzen zituztenak.

Teodosio Goñikoa, Eneko Haritza eta Antso Azkarra,
Agosti Xaho, Santa Krutz apaiza eta Zumalakarregi handia,
Arturo Kanpion, Garat eta Arana-Goiri anaiak,
Etxepare, Axular eta Etxeberri Sarakoa,
Txillardegia, Lafitte eta Koldo Mitxelena,
Dolores Ibarruri, Monzon eta Agirre lehendakaria,
Larzabal, Legasse Monzon eta Joseba Elozegi gudaria,
Etxebarrieta, Apala, Etxabe, Iturbe eta Argala,
Labegerie, Lete, Laboa, Lertxundi eta Lurdes Iriondo eztoa,
Unamuno, Barojatarrak eta Barandiaran apaiz miresgarria,
Etxamendi, Pantxo eta Peio, Itziarren semearen oihartzuna,
Txillida, Oteiza, Mendiburu, Zumeta eta Basterretxea.....
Hitz batez, Herri baten zerrenda luze eta etengabea.

Horrela ezagutu nuen gure bandera
ikurrin zuri, gorri eta berdea,
eta jakin nuen gudarien borroka
eta jasandako odolezko martirioaz.
Horrela jakin nuen gure aberriaz,
zazpi lurraldez osaturiko ama-lurraz,
Iruñeaz, gure hiri buruzagiaz,
Nafarroako errege-erreginen gorte eta kabiaz.
Horrela jakin nuen euskaldunen amets eta xede
zen askatasun nahiaz, independentzia grinaz.

Urteak igaro dira eta ez alferrikan,
denetik ikusi eta sufritu dut urte luze hauetan,
lagunak, adiskideak, galdu ditut bidean.
Zirimola ero batek zikindu du gure xedea,
urte luzeko bide galduak hurbildu gaitu amildegira,
arrotzek abilki dute jokatu eta soka motzaz lotu berera,
gure lurra, gure mintzaira, lehen bezala ukatuz. Hau bai dela!
Amona hil zen, aita-amak ere bai
eta ni gaur, hirurogeita bi urteko zaharra nauzue.

Ametsak eta xedeak ez ditut halere galdu.
Badakit negu beltzean jarraitzen dugula,
arrotzen legea ukazio dela beti guretzat,
baina nire bihotzean askatasuna dut beti amets.

Nahi nuke egun handia ezagutu,
zazpi haurridez osaturiko sendia
libro eta independente nahi nuke ikusi.
Guk ez badugu atzematen
gure seme-alabei, gure bilobei,
bidea diezaiegun presta.

Libertatean hazi eta bizi daitezten,
euskal estatua sortzen ikus dezaten.

Eta egun handi horretan,
biziak euskaldunoi zor digun udaberrian,
negu beltzean bizi izan ginenon belaunaldiak,
begirunez eta maitasunez oroitu gaitzaten.

Errekak eta ibaiak itsasora doazen moduan,
negu beltzenen ondotik, lili eta kimu berriak
ernatzen eta pizten diren maneran,
gure nahikari, xede, amets eta bizipenak
loratuko dira euskaldunon egun handian.

Marik, Basajaunek, Xahok, Agirrek eta Monzonek
gure urratsak helmugara ongi bidera ditzaten!

Euskara

Nehoz ez zen hasierarik izan,
eta garai zaharretan ere
euskaraz mintzo ginen euskaldunok,
euskaraz bizi ginen,
euskarak gure izaera
sortu eta zuen bideratu.

Milaurtez milaurte,
gizaldiz gizaldi,
horrela izan da,
euskara izan da
gure zainetan.

Garai txarrenetan ere,
euskara izan da
gure ezpainetan,
euskara bizi izan da
gure gogo eta bihotzetan.

Badira gaur euskara baztertzen dutenak,
euskara ahanzten dutenak,
odolari uko egiten diotenak.

Horiei zer erran?

ez dute euskararen doinua
heien belarrietan behar,
ez dute euskararen goxoa
heien ezpainetan behar.

Horiei zer erran?

Ba al da hitzik gure mina

horiei ulertarazteko?

Beste bideetatik barna

dira abiatu,

erdaren magaletan

dira lerratu.

Haatik, gaur ere

badira euskaldunak,

euskararen alde direnak,

euskaraz mintzo direnak,

euskaraz bizi nahi dutenak,

eta baita euskara bere egin duten

euskaldunberriak ere.

Haiengan dut itxaropena,

haientzat nire esker ona.

Euskararen katea
ez da oraino hautsi,
guregan dirau bizirik,
eta biziko da,
luzaz gainera,
erdal bideetatik barna
dabiltzan anai-arrebak
euskararen baitara
berriro erakarriz,
euskararen pindarraz
heien bihotzak
berriz piztuz.

Eta biziko da
gizaldi eta milaurte luzetan,
euskaldunon
gogo-bihotzetan,
euskaldunon
ezpain-belarrietan.

Odolean zaramatzagu

euskara maitea,

ezpainetan zaitugu

egunero gozatzen,

eta euskaraz bizi gara,

goizetik arratsera,

beti egin dugun bezala.

Euskarak janzten gaitu

eta du gure izaera osatzen.

Euskara biziko da

mendi eta itsaso bazterretan,

Euskal Herriko hiri eta herrietan,

gure seme-alaben

eta heien ondorengoen

ahoetan.

Nehoiz sortu ez zena

ez baita nehoiz hilen.

Hasierarik izan ez zuena

nekez ukan baitezake

amaiera.

Gizon-emakumeen bide erratua

Gizon-emakumeek
osasuna galtzen dute
dirua egiteko,
eta gero dirua galtzen dute
osasuna berreskuratzeko.

Geroaz gehiegi pentsatzeagatik
oraina ahanzten dute.
Nehoz hilko ez bailiran
bizi dira,
eta nehoiz bizi izan ez bailiran
hiltzen dira.

Dalai Lama

Gure seme-alabak

Gure seme-alabak ez dira gureak,
bizitzaren seme-alabak baizik,
eta bizitzak ditu formatzen.

Ez datoz guregandik,
gure bitartez baizik,
eta gurekin hazten diren arren
ez dira gureak.

Maitasuna eman diezaiekegu
baina ez gure pentsamenduak,
beraiek beren pentsamendu
bere-berezkoak baitituzte.

Beren gorputzak aterpetu ditzakegu
baina ez beren arimak,
gure seme-alabak
biharko etxean bizi baitira,
eta guk ezin ditugu bisitatu
ezta ametsetan ere.

Ahalegindu gaitezke
haiek bezalakoak izaten,
baina ezin ditugu
gu bezalakoak egin,
bizitza ez baita nehoiz gelditzen,
ez baitu nehoiz gibelerat egiten.

Gu gara gure seme-alabak
bizitzara jaurtitzen dituen arkuak
eta neurri batez,
haiek dira gure gezi bizidunak.
Jaurtiketa horrek haien zoriona
bilatu behar du.
Zeren eta Hark gezia maite badu ere,
arkularia modu berean maite baitu.

Khalil Gibran

Haizearen ereta

Doinua: Harrien negarra

1

Uluka dabil Eate
mendi eta bazterretan,
uluka dabil Eate
mendi eta bazterretan.

Haizearen ereta
gure belarrietan,
txingor ta elurra
goi bortuetan.

Haizearen ereta
gure belarrietan,
txingor ta elurra
goi bortuetan,

2

Haizea dabil kantari
Nafarroako ibarretan,
haizea dabil kantari
Nafarroako ibarretan.

Haizearen ereta
mendi ta oihanetan,
euskal irrintzina
oihartzunetan.

Haizearen ereta
mendi ta oihanetan,
euskal irrintzina
oihartzunetan.

3

Hostoak aidean dabiltz
pausatzen bideetan,
hostoak aidean dabiltz
pausatzen bideetan.

Kondaira zaharrak
mendeen orrietan,
aro galdua
itxaropenetan.

Kondaira zaharrak
mendeen orrietan,
aro galdua
itxaropenetan.

4

Aro zaharrak gogoan
erresuma zaharrear,
aro zaharrak gogoan
erresuma zaharrear.

Heldu da garaia
bizia geroan,
garaipena
gure bihotzean.

Heldu da garaia
bizia geroan,
garaipena
gure bihotzean.

Haritz hostoa

1

Haizeak ekarri du
eta etxeko atarian dago,
harro, etzanik, kolorez betea,
maitasunez jasoko duen
esku baten zain agian.
Gorrixka da, hamaika gorritz osatua,
udazken kolorez jantzia
eta eder, umil eta apal datza
etxeko ate aitzineko zolan.

2

Haren irudiak gogoeta biziak
eragin dizkit.
Haritz hostoa ez al da euskal izaeraren
ikur eta aldarria, denbora berean?
Ez al dugu Euskal Herria
haritz sendo batekin alderatzen?
Iruñetik gora, bai, bederen,
Iruñetik behera, olibondo hostoak
ordezkatzen du horretan.

3

Haritza eta olibondoa, zortzikoa eta jota,
Herri honen bi aldeak, bi paisaiak,
Herri honen bi norabideak, bi isurialdeak,
atlantikoa bata, mediterranea bestea,
Añamendiak ditu bizkar-hezur,
teilatu eta sabaia, talaia eta gailurra.
Ezker-eskuin dira euskal lurraldeak,
etxeak eta herrixkak, herriak eta hiriak,
bizitoki eta hilerriak, garaitzak eta porrotak.

4

Añamendietako tontorretatik ikus daitezke
bordak, etxolak, baserriak eta herriak.
Urrunean Iruñea hiri buruzagia,
hurbilago, itsasaldean, Baionako portua,
ekialderago Kanbo, Donapaleu, Garazi eta Maule.
mendebalderago Donostia, Gasteiz, Durango eta Bilbo,
hegoalderago Lizarra, Gares, Biana, Tafalla eta Tutera,
gure Herriaren ispilu, iragan eta geroa,
gure izatearen lekuko zahar eta urrats berria,
gure garaipenaren kemen, grina eta nahikaria.

5

Gogoeta sakonak, pentsamendu alaiak,
itxaropenez arras beteak,
itsasoko kresalaz zipriztinduak,
amets pirenaikoaz egituratuak.
Haritz hostoak hau dena ekarri zidan gogora,
etxeke atarian eder eta apal zetzanak,
udazkenaren koloreez jantzitako hostoak.
Izadiaren magia eta lilura nahasi zitzaizkidan
Udazkeneko goiz eder eta argitsu hartan.

Hatuey eta Guarina

Ipurtargi bat eskuan eta tabako hostoa ahoan,
harkaitz batetik indio batek Kubako zerua begiratzen du.

Gauak, bere soingaineko beltzaz,
mendiak eta lautadak ditu janzten.

Haizea ufaka ari da mendietako lainoak dardaraziz
eta kilkerrak kantari ari dira, Hatuey, berriz, triste da.

Buruan luma ubelak daramatza,
eta lepo gainean dauka bere uztai miresentarria.
Gizon sendoa bada ere, beldur batek astintzen du.
Harkaitz garai hartatik zerua begiztatzen du,
bihotza goibel dauka, barrua arras ilun,
jainko-jainkosei otoitz egiten die laguntza eskatuz.

Haizeen ereta du belarrietan eta haize bortitzak
zedro sendo handiak astintzean sortzen duen zarata
barne-barneraino sartzen zaio indioari.
Txori kanta ozen ederrak ditu entzuten
eta bihotz-bihotzez ditu miresten.
Erreka kantariaren murmurioak
ditu oinen azpian sumatzen.

Ezpainetatik ziztu bat atera zaio
eta neska indio eder bat zaio hurbildu.
Neska liraina harkaitzera igo da
eta Hautey bere aitzinean da begirunez makurtu.
Maitasun handiz elkarri diote musu bat eman,
Agur Guarina! ---erraiten dio indioak tristuraz.

Ez, maitea, ez! Ez zaitetz joan, otoi!
--erraiten dio neskak negarrez---,
zuhaitz handien hostoen antzera
dar-dar egiten dut, maitea!
Hondartza hauetatik baldin bazoaz, nigandik urrun,
une oro oroituko zaitut, ene laztana!

Zer izanen da zure Guarinaz,
zu gabe, zure amodiorik gabe?
Lore ihartua, kurrilo zauritua,
kanturik gabeko txoria...
Negarrari ekinen diot, etengabean,
eta Viramako lintzura izanen da nire hobia.

Hauteyk isil eta triste entzuten dio,
bihotzean du zimiko mingarria.
Hunkiturik dago, arras goibeldurik.
Kolkoan garrasi isil bat ito zaio.
Neskaren malkoak xukatzen ditu eskuaz
eta eztiki belarrira dio erraiten:

Guarina maitea! Gure herriak bizi behar du
duin eta libre, gure oihanen antzera.
Arrotzek ez dute gure herria suntsitu behar,
ezin diegu utzi, aurre egin behar zaie.
Guarina maitea, ez ezazu negar egin,
nire bihotza sufritzen ari da.

Ni Hatuey nauzu, indio librea,
bere lurra maite duen gizona,
gure herriaren alde borrokatzen dena.
Entzun dezatela nire irrintzia,

askatasunerako dei ozena,
jakin bezate Hatuey bizi dela.

O Guarina! arraza anker horri guda egin behar zaio.
Gaur gure lurrak, gure herriak kiskaltzen ari dira,
gure mendiak, gure oihanak, gure ibaiak
nahi dizkigute lotsagabeki ebatsi.
Jakin dezatela zein den gure gezien indarra!
ezagutu dezatela gure azkonen ziztada!

Badakit zure sufrikarioaz, zure penaz,
badakit zure norabide galduaz, zure gero antzuaz.
Nik ere sufritzen dut zu urrun ikusteaz,
Viramako mendiak, errekek eta liliak uzteaz.
Bihotzez maite zaitut Guarina,
baina aberria arrotz krudelez askatu behar dugu.

Horrela dio Hatuey adoretzuak,
negarrez, hasperenez ari da,
Guarina ederraren aitzinean makurtzen da.
Neska ere malkoz blaiturik dago,
galduko duen amodioaren xerka.
Indioak kopetan musukatzen du neska.

Maitasunezko musua, musu bero-beroa,
bihotzetik sorturiko musu sentikorra.
Neskak beste musu batez dio erantzuten,
amodioaren besoetan dira biak.
Guarinak, musuak xukatuz eta burua altxatuz,
Hatueyri erraiten dio malko artean:

Zoaz, zoaz buruzagi bulartsu hori!
Zoaz jaun noble eta adoretsua!
Nire amodioa ez da inoiz
aberriaren askatasunerako traba izanen.
Zoaz, arrotzak garaitu eta itzul zaitetz niregana!
Guarina zain izanen duzu, Guarinak maite zaitu.

Bai, zin dagizut, itzuliko natzaizu!
–ihardetsi zion indioak– burua zutituz.
Musu berri bat eman zion neskari,
azken agurra, azken musua izanen dena.
Indioa gerrara doa bere gerlariekin.
Musu ezti hori izan da azken agurra.

Juan Cristobal Napoles Fajardo, El Cucalambé (1829-1862?)
kubatar olerkariak olerki ederra eskaini zien espainiarren
aurka borrokatu ziren Hatuey buruzagi tainoari
eta Guarina emazteari.

Hartza Donibane Lohizunen

1.- Donibane Lohizuneko

hartz eder miresgarria,
karrikaz karrika dabil
dantzan eta dantzan biran,
kaskarotak hor dabiltza
dantzan makilak joaz,
inauteria etorri zaigu
udaberriaren bila.

2.- Neguko gau luzeak

ta egunak laburrak,
zeru hits eta iluna,
euria eta aro hotza.
Heldu zaigu hartz handia
eguzkiari deika,
udaberriaren xerka,
heldu da inauteria.

3.- Soka inguruan dabiltza

hiriburu alaiak,
dantzari emanak dira
zangoak beti airean.
Zaku arropak ta xingolak
ta kapelu zabalak.
Hiriburuen garaia
Donibanera da iritsi.

Inexa Gaxen

1.- Baxenabarreko Bastidan

sortu zen lilia;
belarrak zituen maite,
hau da, belarrez sendatzea.
Horixe zen bere hobena,
lagunak maitatzea,
horregatik aitak berak
etxetik zuen igorri Hendaiarat.

2.- Lapurdiko lurretan

jarraitu zuen berdin,
ukenduak, sendagaiak, belar-urak
eta horrelakoak eginez eta zabalduz.
Herritarrek maite zuten,
laguntza bihotzez eskertzen zioten,
baina Urruñako gazteluko nagusiak,
Urtubiako jauntxoak zuen begitan hartu.

3.- Ez da erraza laguntzea,

ez da aisa besteak maitatzea
eta belarrez oinazeak arintzea...
Beti badira aiduru diren saiak,
bekaizkeriaz eta gorrotoz ari direnak,
besteen jardunaz eta lagunarteaz
mesfidati eta bihotz gaiztoz begiratzen dutenak.
Horiek zuten, azkenean, larrutu bildotsa.

4.- Tristan Urtubiakoak bere morroiak zizkion igorri,
atxilotu eta zulo batean sartu,
umiliatu, torturatu eta hebaindu,
belargilea sorgin nahi zuen bilakatu,
Frantziako erregearen aldeko faborea lortu,
bere boterea agerian utzi eta zabaldu,
horretarako errugabeak egin zituen zigortu.

5.- Inexa eri eta makur zela, zuen Akizera bidali,
han epaiketa egin behar ziotela galdatuz.
Horrela egin zioten eta hortik,
arras errugabea zenez, kalera libratu.
Hendaian jasandako torturek
arrasto txarra utzi zioten betiko,
horregatik, Bidasoaz beste aldera zen igaro,
Irunen eta Hondarribian bizitokia zuen hartu.

6.- Pedro Sanz soldaduekin zen ezkondu
eta alabatxo bat zuen mundura ekarri.
Orduan, zorionez gainezka zegoenean,
hiru haur txepelek zuten sorgintzat salatu.
Haurren gibelean bazen auzoen herra eta bekaitza.
Hondarribiko ziegan zuten sartu eta berriz torturatu,
gerora Inkisizioak zuen epaitu eta askatu,
gabarra batean sartu eta zuten Hendaiara bialdu.

7.- Hortik aitzina zer zen gertatu,
historiaren baitan zaigu geratu.
Hendaian gelditu al zen, familiatik gertu?
edota Bastidako etxera zen itzuli?
Bidasoa al zuen berriz pasatu?
Historiaren baitan zaigu geratu.
Lerro hauetatik Bastidako lilia nahi dut goratu,
beti emazte libre, makurtu gabea, baitzen loratu.

Irrintzinak Done Jakue zubian

Apirilaren 4an, Korrikaren kari,
ehunka euskaltzale, ehunka korrikalari.
Lekukoa Hendaiatik dator,
harro eta alai, eta Irunera doa.
Zubian jende pilo bat aiduru,
bizkarrekoa jantzirik, zangoak prest.
Bazterretan polizia frantsesak, arrotz eta hotz,
heien ondoan militar frantsesak metrailetak eskuan,
poliziak bezain arrotz eta hotz.
Sua piztu nahian dabiltzala dirudi.
Euskal jendearentzat, berriz, ikusezinak dira,
Euskal Herria banatzen duen sasi-muga bezain ikusezinak.

Heldu da Korrika!
Hendaiatik dator, Irunera doa.
Zubia zeharkatzen hasi da.
Hura poza eta alegrantzia!
Zain zirenak lasterka egiteari lotu zaizkio,
lekukoa esku batetik bestera pasatu da.
Aurrera doa Korrika!
Aitzina doa euskara!
Hodei ororen azpitik
eta sasi-muga guztien gainera.

Irrintzinak dira airean, baten gibeletik bestea,
eta hirugarren bat ondotik.
Kateak ez du etenik, euskal bihotzak bero dira,
zangoak lasterkari emanak,
irrintzinak etengabeen dira entzuten
eta soldadu eta polizia arrotzak dituzte enerbatzen.

Badoa Korrika!
Iparraldetik Hegoaldera,
Lapurditik Gipuzkoara,
Hendaiatik Irunera,
lekukoa dantzan dabil, eskuz esku,
zangoz zango, mihiz mihi,
bihotzez bihotz.

Aitzina doa euskara!
Aitzina euskaldunon hatsa!
Oteizaren harri parean aldatu dute lekukoa,
eskuz aldatu da jakilea.
Harri hau gezurtia dela diote,
ezker-eskuin gezurra baitu zabaltzen:
France / España
baina lur azpian,
euskal lurra ferekatuz,
egia omen dauka zizelaturik:
Euskal Herria.

Tropela Irunera buruz doa.

Ika, ika, ika heldu da Korrika!

-entzuten dugu zubitik.

Bat korrika, bi korrika, hiru korrikalari,
zazpi euskal herrietan denok bai euskarari!

-erantzuten diogu jadanik gibelean
gelditu garenok.

Korrika badoa,

korrikalariak urruntasunean dira galtzen,

eta guri etxera itzultzeko unea zaigu iritsi.

hala eta guztiz ere, lasterketa ez da bukatu,

luzea izanen da oraino,

baina, jadanik, denok badakigu

biharko Euskal Herri askatuan

euskara dela helmugaraino iritsiko.

Iruñea

1.- Euskaldunen artean lehena,
euskaldunen hiri zahar eta berria,
antzinako oinarrietan eraikia,
Eneko Haritzaren hiria,
Antso Handiaren habia,
albretarrek etsaiaren esku
utzi behari izan zutena.
Iruñea, Iruñea...
euskaldunen ametssetako lilia.

2.- Urtero, uztailaren zazpian
zuri-gorritz janzten zaigun hiria,
San Ferminetan jaia da nagusi
zure plaza eta karraketan.
Astebetez, munduko bestaren hiriburua,
arno, kantu, dantza eta jaia
errepikatzen dira urtero zure kaleetan.
Iruñea, Iruñea...
euskaldunen ametssetako lilia.

3.- Estafeta kalea eta Nabarrera,
Foruen monumentua eta Gaztelu plaza
dira zure bizitzaren lekuko isilak,
iruindarren eguneroko arazo, pena,
asmo eta pozen jakilea.
Urteak joan, urteak jin,
gerlak dira igaro, oraina dugu eskura.
Iruñea, Iruñea...
euskaldunen ametssetako lilia.

4.- Euskal Herri osoan zaitugu maite,
zure karriketan garelarik, etxean gara.
Euskal Herriko bide guztiek
Iruñera garamatzate, norabidea galdu gabe.
Bizkaitik Zuberoara zaitugu kantatzen,
Mari handiak euskaldunoi eman zigun euskaraz.
Nafarroa dugu ardatz eta gero askearen giltza.
Iruñea, Iruñea...
euskaldunen hiri buruzagia.

Itxialdia

- Barekurkuiluen antzera,
barrura begira,
barruan biziz,
barruan pentsatuz,
barruan sortuz.

- Kanpoan udaberria, bedatsea,
kimu berriak zuhaitzetan,
lili ederrak zelaietan,
hodeirik gabeko zeru argiak,
tarteka euria
soro bakartiak bustiz,
tarteka eguzkia
karrika bakartiak berotuz.

- Izurria nagusi ludian,
beldurra atxikirik bihotzetan,
hildakoen kopurua beti gora,
ospitaleak gainezka,
hiltegiak herioz mukuru,
esperantza ahulduz doa.

- Euskal Herri gaixoa!
izurriak bortizki jo du,
arrotzek dute muga itxi,
euskaldunak etxeetan gordeta,
barekurkuiluen antzera,
barrura begira,
askatasuna amestuz,
bizi-nahia kantatuz,
eta esperantzari leiho bat
zabaldu nahian.

- Bizi, biziko da gure Herria!
Eta gainera
egoera lazgarri honetatik
sendo, indartsu eta irabazle
aterako da.
Eta gu kontatzaile.

Izarlandako bidea

1.- Ekialdetik mendebaldera,
iduzkiaren sorlekutik
bere herio kabira,
urruneko lurretatik
urruneko lurretara
badoaz ibiltariak, gelditu gabe,
izarren bideari jarraituz,
mendiak eta pentzeak korrituz,
jendeak eta herriak ezagutuz.

2.- Zuhaitz sendoen gerizpetik barna,
zuhaitz sakratuen erresumetatik zehar,
badatoz ibiltariak, badoaz,
nekearen nekez, eskuan makila lagun,
bihotzean kemena
eta gogoanugarra.
Bide ttipietatik, hautsa astinduz,
Izarlandako bideari segituz,
izarren bideetatik aitzina eginez.

3.- Donibane Garazi atzean utziz,
Orreaga, Luzaide, Auritze...
Iruñea, Lizarra, Viana eta Naiara
urruntasunean ahantziz,
badatoz ibiltariak, badoaz,
euskaldun zaharren erresuma zeharkatuz.
Mari jainkosa handiak horien urratsak
gida ditzala izarren bide galduetan,
lurraren azken muturreraino!

Izurritearen gezurrak

1.- Berez sortua dela
diote, behin eta berriz,
guregan halako gezurra
errotu nahian.

Ainitzetan holakoak
izan direla historian barna,
eta horrek, egia bada ere,
ez du erran nahi
oraingoa holakoa denik.

2.- Maskak eta txertoak,
konfinamendu eta distantziak,
Erdi Aroko herio dantzak,
gaurko aroko baliabide eskasak.
Bizimodua eraldatu digute,
harremanak urritu,
mendetasun itsua zabaldu,
Ordena Berria bilatzen dute,
gure onerako dela diote.

3.- Izurritea sortu dutenek
mundua kontrolatzen dute,
sakelak sosez beteak dituzte,
haatik, gehiago kendu nahi digute.
Horretarako esklabo behar gaituzte,
musuak maskaz estalirik,
gure nortasuna ebatsirik,
gure itxaropenak ezabaturik
eta euren meneko bihurturik.

4.- Gezurra gezurraren gainean,
boterea botereari deika,
hedabideak zepoan sarturik,
izpiritu matxinoak otzandurik.
Hori da bilatzen dutena,
belauniko nahi gaituzte,
esperantza arrunt galdurik.
Lortuko al dute euren asmo zikina?
Herritarrok ez al gara itzarriko?

Jaizkibel ene bizipenetan

- Murrua itsaso aurrean,
murru luze-luzea,
naturak egindako horma,
naturak maite duen bazterra,
Pasai Donibane, Lezo,
Hondarribia eta Irun
gerizatzen dituen,
hamaika txoko,
hamaika xendra,
gailurretako dorreak,
itsas bazter ederrak,
zaldiak, behiak, betizuak
eta ardiak larreetan,
kaioak, antxetak eta pottorroak
kantari hondarrezko haitzetan.

- Haizeak hondar-harrietan
landutako paisaiak,
kontrabandisten bidexkak,
baleazaleen talaiak,
euskal piraten gordelekuak,
Trapujale eta Marinazkaneren
bizitoki magikoa,
Zabarre kapitain adoretsuaren
itsas ibileren lekukoa,
Allerruko Amonaren begiratokia,
ametz basoak eta oihan beltzak,
itturri fresko kantariak,
eta erreka garbi aratzak.

Artzain eta baserritarren lurra,
arrantzaleendako
lehen eta azken agurra.

- Hori dena da Jaizkibel niretzat,
mendi, baso, dorre eta babes,
bakezko eta gerrazko garaien jakile,
urrunerako itsasaldien oihartzun,
kondairaz eta magiaz
blaituriko mendi heze luzea,
magaletan bizi direnentzat
gerizpe eta aterpe,
eguneroko bizimodu petranean
beste errealitate baten seinale,
itxaropen kabi eta
bizi nahi duen Herri honen branka.

- Jaizkibel izan dadila luzaz
izadia, irudimena eta magia
uztartzen dituen mendia,
gure esperantzen portu gotorra
eta bizimodu aske baten
iragan eta geroa.

Kataluniari bihotzez

- Mediterraneoan daukagun senide zahar maitea,
historiak senidetu gaitu borroka luzearen bidean,
bizi nahi eta ezin, arrotzaren pean aspalditik,
zapaltzen gaituzten aldiro, elkarrekin beti.
- Borroka gaitezen denok askatasunari begira,
elkartasuna izan dadin libertaterako bide argia,
halako umilazio, iseka eta begirune eza
erakusten digute betiro, mukuru harrokeriaz.
- Bada ordua, bada tenorea, arrotzen indar zitala
gure gainera dezagun kendu, kateak ditzagun apurtu,
askatasun eguzkiak gure herriak ditzan berotu,
gure bihotzak poztasunez ditzan alaitu.
- Mediterraneo eta Kantauri, Auñamendiak ardatz,
izan daitezen gure itxaropenen lekuko eta jakile,
fandangoak eta sardanak ditzagun dantzatu pozik plazetan
independentzia izan dadin gure herrien ametsa.
- Kanpora arrotz zapaltzaileak! Kanpora oilarra eta zezena!
astoak ostikadaka ditu bidaliko, ardiak hozkaka,
Kataluniako segalariak berriz kalera atera dira,
atera gaitezen ere euskal harri-jasotzaileak.
- Harri eta Herri zioen Gabriel Aresti handiak,
jaso dezagun denon artean ezarri diguten morrontza,
hautsi ditzagun indarrez ezarri dizkiguten kateak,
munduak aske ezagutu ditzan Katalunia eta Euskal Herria.

Larrun

Zerua gailurraz ukituz altxatzen da harro
Lapurdiko eta Nafarroa Garaiko
baserri, borda, herri eta oihanen gainetik,
Sara, Azkain, Urruña eta Bera
bere magaletan hazirik,
lehen euskaldunak sortuz geroztik
Larrun dugu mendi berezi eta preziatua,
hurbil eta urruna, halaber,
Mari, Sugaar, Basajaun eta Tartaloren bizitokia,
erreka aratz garbietan jolasten diren
antzara zango eta adats horiko laminen habia,
sasi guztien gainetik eta hodei guztien azpitik
hegaldatzen diren sorgin alaien erresuma,
pottoka eta betizuen bazka,
artzain eta artaldeen belazea,
iturri garbi eta kantarien sehaska.

Harri zabal-zabal batean bi sorgin eta bi artzain,
elkarren aurka ari dira trukean.
Begi klikaz ari da Gaxuxa,
Ezpainak mugituz eta mihia atereaz
erantzuten dio gordeka Maritxuk.
Jo!!! ---dio indarrez Gaxuxak---
Bai!!! ---ihardesten diote artzainek.
Horrela dira arratseko azken orenetan,
egunero egiten omen dute partida.
Totte eta Txomin artzainak
ordura arte Beltza zakurraren begirada pean
ziren ardiak biltzen eta bordetara bideratzen hasi dira.
Jetzi behar dituzte eta ainitz dira.

Zuhaitzetako txoriak isiltzen hasiak dira,
berehala isiltasun handia da nagusi,
eta ilargi zuria eta hainbat izar
ortzi ilunean ikus daitezke distiraz.
Larrun lo dago eta gau beltza da iritsi.
Hontzak uluka ari dira eta Larrungo larreetan,
aker beltzaren inguruan sorginak dira kantari.
Ujuuu eta ajaaa!!! irrintzika eta oihuka,
Baga, biga, higa... ozenki kantatzen.

Larrun gerizpeko herrietan
gauak bazterrak estali ditu,
etxeetako argiak oraino dira piztuta,
karridak eta bideak, berriz, hutsik.
Gauekoren tenorea da
eta euskaldunak badaki horren berri.
Laster loak hartuko ditu denak,
Inguma ibiliko zaigu denen ametsen gidari.

Goizeko lehen orenetan
baserrietako oilarrak kukurruka,
euskaldunen iratzartzea gertu,
eta pittaka-pittaka, emeki-emeki,
eguzki amandrea ama-lurraren kolkotik
irtengo da, poliki-poliki, airoski,
eta bazterrak ditu argituko, eta berotuko.
Egun berria sortu da,
Larrungo gailurra zutik eta harro ikusten da,
zerua ukituz, gizakiak eta abereak bere eginez.

Horrela izan da hastapenetatik,
lehen euskalduna sortu zenez geroztik,
eta horrela izanen da
azken euskalduna hil arte.

Larrun euskaraz bizi da,
hori da bere hatsa, bere arnasa.

Ez dadila euskaldunen hats zaharra,
Marik emandako mintzaira zoragarria,
nehoiz hil, nehoiz desagertu,
euskararen sugarrek iraun dezatela betiko,
eta Larrun hor izanen da, hor date,
euskaraz bizi den Herriaren
itzal-emaile eta babesle.

Halabiz!

Larrun ez da urrun

1.- Baso, saroi, oihan eta pentze,
ur zirripa, iturritxa eta erreka,
mendi mazela, zelai eta soro,
sasi, sastraka eta larre,
ur, gailur, Larrun ez da urrun.

2.- Gaueko bidexka eta xendra ilunetan,
zuhaitz eta harkaitzen gerizpeetan,
ilargi eta izarren argi izpietan,
hontza eta mozoloen kantu uluetan,
sorginak dira Larrungo gailurretan.

3.- Gaxuxak su-lastargia du eskuan,
Ixabelak xirula kantaria ahoan,
Maddi eta Pantxika ari dira fandangoan,
Graxiana jauzika su-metaren gainean,
Akerbeltz errege, larreko harrizko aldarean.

4.- Altxa sorginak! Lotu dantzari!
Aupa neskak! Bestan kantari!
Gora sorginak! Xirulaz dira ari!
Biba neskak! Biziazen zaindari!
Gora akelarrea! Sineste zaharren beilari!

5.- Azkainetik ikusi dituzte suak,
Beratik entzun dituzte oihu eta irrintzinak,
Saratik igarri dituzte kantu oihartzunak,
Urruñatik atzeman dituzte xuxurla urrunak.
Larrun ez da urrun. Larrunek biziarazten gaitu.

Libre sortua

- Libre sortua! libre!

oihanetan barna dabilen
basurdearen antzera.

- Nekez lotuko zaio morrontzari

libre sortu zen herria,
aitzineko aroetan piztu zena
eta gaurdaino bizirik iritsi dena.

Kate motzean lotu nahi dute
mendietan eta ibarretan barna ibiltzeko
libre sortu zen herria,
ibaiak alde alde zeharkatzeko
trikuharren garaietatik prest izen dena.

- Libre sortua! libre!

itsasoko uhinetan barna dabilen
apar harro eta zuriaren antzera.

- Nekez izanen da esklabo

libre izateko jaio zena,
auzo bortitzen zapalketa
onartzen ez duen herria.

Txori airoxari hegoak nahi dizkiote moztu,
Horrela, kaiolan bizitzea onartuko duelakoan,
baina ez dute euskal txoria ezagutzen
eta ezin izanen dute txoriaren hegalada
inolaz ere eragotzi, inolaz ere galarazi.

- Libre sortua! libre!

gure mendietan barna ozen dabilen
irrintzinaren antzera.

- Madriletik eta Parisetik

ufatzen duten haize zital gaiztoek
ezin izanen dute euskal arbola jausi,
ezin izanen dute Euskal Herria birrindu.

Oraindik ez da munduan sortu

euskal hazia gure lurretatik

ezaba dezakeen bilaua.

Gure Herriak baditu seme-alaba prestuak

arrotz erasoei aurre egiteko beti prest direnak.

- Libre sortua! libre!

uztarria nehoiz jasanen ez duen

askatasun haizearen antzera.

Lili Marleen

1.- Kasernaren aintzin-aintzineko aldean,
Ate nagusiaren ondo-ondotxoan,
hantxe bazen kale-argi bat
ta oraindino
hortxe dago
gure biltokia.
Bai, bai, Lili Marleen! (bi aldiz)

2.- Kaleargitsu horren azpi-azpian,
biok biltzen ginen maitasun haundian,
eta gu bion itzalak
elkartzen ziren
biltokian.
Hor bilduko gira
bihar Lili Marleen! (bi aldiz)

3.- Zaindaria berehala dei egin digu:
“Kasu, ikuskatzea ari duk bukatzen!
Hau hiru egun kostako zaik!”
Elkarri agur
genioen,
Agur nire maite!
Agur Lili Marleen! (bi aldiz)

4.- Berak nire pausoak ezagutzen zituen,
atsalde guztietan han ibiltzen baitzen.

Zerbait gertatu ezker,

noiz bilduko

argi azpian

zukin Lili Marleen?

zukin Lili Marleen? (bi aldiz)

5.- Eremu isiletik nire gogoetan
zure ezpainekin amets dut egiten.

Noiz besarkatuko zaitut

argi azpian?

Maitasunez

zain izanen nauzu

beti, Lili Marleen! (bi aldiz)

Beti, Lili Marleen!!!

Hans Leip

Maitea

Mexikoko La LLorona kantuarien moldapena

1.- Zer dute liliak, maitea?

hilerriko lili horiek.

Zer dute liliak, maitea?

hilerriko lili horiek.

Haizea dabilenean, maitea,

negarrez hasten dira.

Haizea dabilenean, maitea,

negarrez hasten dira.

2.- Gaixoa ni, maitea, maitea,

zu zara nire bihotza.

Gaixoa ni, maitea, maitea,

zu zara nire bihotza.

Ezin zaitut maite, maitea,

baina ez zaitut ahaztuko.

Ezin zaitut maite, maitea,

baina ez zaitut ahaztuko.

3.- Burdinazko gurutze bati, maitea,

penak dizkiot kontatu.

Burdinazko gurutze bati, maitea,

penak dizkiot kontatu.

Eta horiek aditzean, maitea,

negarrez hasi zitzaidan.

Eta horiek aditzean, maitea,

negarrez hasi zitzaidan.

4.- Gaixoa ni, maitea, maitea,
lilizko pentze ederra.
Gaixoa ni, maitea, maitea, maitea
lilizko pentze ederra.
Amodioz ez dakienak, maitea,
ez daki zer den pena.
Amodioz ez dakienak, maitea,
ez daki zer den pena.

5.- Beltza deitzen naute, maitea,
beltza baina xamurra.
Beltza deitzen naute, maitea,
beltza baina xamurra.
piperminaren antzera, maitea,
mina baina goxoa,
piperminaren antzera, maitea,
mina baina goxoa.

6.- Gaixoa ni, maitea, maitea,
ibaira nazazu eraman.
Gaixoa ni, maitea, maitea, maitea,
ibaira nazazu eraman.
Babes nazazu maitea,
hotzez nauzu aldean.
Babes nazazu maitea,
hotzez nauzu aldean.

7.- Maite zaitut bihotzez, maitea,

zer gehio jakin nahi duzu?

Maite zaitut bihotzez, maitea, maitea

zer gehio jakin nahi duzu?

Bizia badizut eman, maitea,

zer gehiago nahi duzu?

Bizia badizut eman, maitea,

zer gehiago nahi duzu?

8.- Gaixo ni, gaixo ni,

gaixo ni, maitea.

Gaixo ni, gaixo ni,

gaixo ni, maitea.

Ai, ai, ai, ai,ai ,ai ai!!!

Maite-grina

- Laztana,
zatoz niregana!
nire besoetara,
besarkatzera!

- Laztana,
hurbil zaitez nigana!
nire besoetara,
elkar maitatzera!

- Zure malkoak dira
perla ederrak
ta itsasoko aldera doaz
geldi gabean;
olatuetan barrena
ibiliko dira
itsasoko gesaletan
blaituak.

- Zure malkoak dira
perla ederrak
ta itsasoko aldera doaz
geldi gabean;
olatuetan barrena
ibiliko dira
itsasoko gesaletan
blaituak.

Mariren nahikaria

Doinua: Zorion etxe hontako denoi

1.- Iduzkia ateratu zaiku

Urruñako mendietan,

hodei zurien artean dabil

bidexka ta oihanetan.

Eta sorginak dira kantari

Larrun mendiko gainetan,

akelarrea ari dira prestatzen

harri gorrizko aldareetan.

2.- Mari jainkosa ere hor dugu,

suzko igitaia eskuan,

alde batetik bestera dabil

zeruetan suzko gurdian.

Sei marro handik gidatzen dute

gurdia hodeien artean,

ama-lur osoa korritzen dute

tarrapata etengabeen.

3.- Nigar egin du Mari gureak

euskaldunak ikustean,

behe-behean erorita gira

amildegi sakonetan.

Itxaropenezko hitz ederraz

mintzo zaiku bat-batean,

euskaldunak biziko zirezte

gaur, bihar eta geroan.

Mari zaiku kantari

1.- Mendi txoko eta bazterretan

Mari dabilkigu kantari,
arratseko lehen orenetan
laminak dira dantzan ari.

Amodioa da
kantuaren gaia,
aro zaharreko oihartzuna,
amodioa da
kantuaren gaia,
jainkosaren erantzuna.

2.- Euria daukagu mendietan,

iduzkia da dir-dir ari,
ortzadar daukagu zeruetan
gizonaren urrats gidari.

Amodioa da
kantuaren gaia,
aro zaharreko oihartzuna,
amodioa da
kantuaren gaia,
jainkosaren erantzuna

3.- Laminak kantari erreketan,

ileak orrazten dirade,
urrezko orrazia eskuetan
uretan jostaketan daude.

Amodioa da
kantuaren gaia,
aro zaharreko oihartzuna,
amodioa da
kantuaren gaia,
jainkosaren erantzuna.

4.- Tartalo, Inguma ta Sugaar,
Mikelats eta Atarrabi,
Hodei, Basajaun eta Amazkar,
Gaueko, Herensuge, Itzularri.
Amodioa da
kantuaren gaia,
aro zaharreko oihartzuna,
amodioa da
kantuaren gaia,
jainkosaren erantzuna.

5.- Jadanik iluna da gauean
Euskal Herriko ibarretan,
ilargia izarren artean,
uluka otsoak xiloetan.
Amodioa da
kantuaren gaia,
aro zaharreko oihartzuna,
amodioa da
kantuaren gaia,
jainkosaren erantzuna

6.- Eguna dugu gizakiarentzat
erresuma eder argia
eta gau beltza Gauekorentzat
eremu ilun ta lazgarria.
Amodioa da
kantuaren gaia,
aro zaharreko oihartzuna,
amodioa da
kantuaren gaia,
jainkosaren erantzuna.

7.- Lapurdiko teilatu gorriak
egunsentian agertzen dira,
iduzkiaren izpi gorriak
egun berriaren argira.
Amodioa da
kantuaren gaia,
aro zaharreko oihartzuna,
amodioa da
kantuaren gaia,
jainkosaren erantzuna.

8.- Joan zauzkigu gatu beltz-beltzak
xori ederrak dira kantari,
uxatu ditugu oren latzak
gaiten geroaren zaindari!
Amodioa da
kantuaren gaia,
aro zaharreko oihartzuna,
amodioa da
kantuaren gaia,
jainkosaren erantzuna

9.- Iduzki-lorearen batzarri
mendi txoko ta bazterretan,
poz, bozkario eta osagarri
euskaldunen bihotz barrenetan.
Amodioa da
kantuaren gaia,
aro zaharreko oihartzuna,
amodioa da
kantuaren gaia,
jainkosaren erantzuna.

10.- Badoa Mari suzko gurdian
Larrunetik Artzamendira,
arno nafar ederra zahagian
Baiguratik Auñamendira.
Amodioa da
kantuaren gaia,
aro zaharreko oihartzuna,
amodioa da
kantuaren gaia,
jainkosaren erantzuna

Doinua: Por montes, caminos y aldeas de Gipuzkoa la dulce y bella.

1914ko gerla madarikatua

1.- Berri txarra berehala zabaldu zen,
herriak lozorrotik iratzarriz,
herritarren bihotzak izutuz.
Frantzia eta Alemania,
Alemania eta Frantzia,
bi potentzia aurrez aurre,
interes kontrajarrien talka,
sosdunen nahikeria,
diruzalekeria,
Europaz nagusitzeko grina,
bankariek eta politikariek
piztutako gerla madarikatua.

2.- Europako zelai, pentze eta soroak
lubakiz bete zituzten,
arma zaharrak eta arma berriak
zituzten erabili,
gas hilgarriak frontean ziren nagusi.
Buruz buruko borrokaldiak,
baionetaz zulaturiko gorputz gazteak,
gaztetasuna alferrik
galdutako soldadu bizargabeak.
Gerla zen eta gerlara deitu zituzten
langileak eta laborariak,
hasieran gazteak eta zaharrak ere ondoren.

3.- Frantzia eta Alemania,
Alemania eta Frantzia,
interes kontrajarrien talka,
bankarien eta politikarien nahikeria,
hiritar xumeen sufrikario eta hilerri.
Europa hilez bete zen,
etxeetan semeak zituzten galdu,
alargunez eta umezurtzez
bete ziren herriak,
negar malkoak eta herio oihuak,
Europa ez zen jadanik herrien habia,
baizik eta hildakoen herria.

4.- Eta gure Euskal Herrian,
Lapurdin, Baxenabarren eta Zuberoan,
gerlarako dei eta aldarriak zabaldu ziren,.
Gerla zen eta gerlariak behar zituen.
Ainitz sasian gorde ziren,
Hegoalde alderako bideak
iheslariz ziren bete,
desertore franko bizia bilatuz.
Baina gehien-gehienak eraman zituzten,
engainatuak, bahituak, gezur ederrez mozkortuak,
heien etxeetatik urrun,
ezagutzen ez zituzten lurretara.

5.- Gerlak bere kobrantza zuen hartu,
euskaldun gazteen bizitza zuen ebatsi,
gure mutil gazteen lorea zuen ebaki,
gure herriak hilez eta elbarrituz zituen bete,
eta onik itzuli zirenak,
ez ziren eraman zituzten berberak.
Bihotza zuten hits eta tristea,
gazteria ebatsia eta alferrik galdua,
begirada eri eta makurra.
Gero, hilerriak liliz bete zituzten,
herrietako plazak, karrikak eta bazterrak
harrizko oroigarri hotzez zituzten jantzi,
Morts pour la France, Morts pour la patrie.
zizelkatu zuten lotsarik gabe oroigarrietan.

6.- Gezurrak gezurren gainean,
egiak hilerrietan ehortzirik,
amak, alargunak eta umezurtzak
urre koloreko dominak jasotzen
galdutako senideen truke.
Ordain lazgarria! Hitz hutsak!
Trufa eta burla zikinak!
Bankariak eta politikariak pozik,
sakelak eta kutxa-gotorrak sosez beteak,
interes ilunak ongi bideratuak.
Horixe izan zen 14ko gerla,
Europa odolez blaitu zuen triskantza.

Nafarroako ikasleak

Jota herrikoia

Nafarroako ikasleak, txin pun,
izor hadi nagusi eta atera
arinoa, ogia, lukainka, xingarra...
ta hor konpon!

Ostatura joatean, ene bada!
Ostatura joatean, txin pun,
izor hadi nagusi eta atera
arinoa, ogia, lukainka, xingarra...
ta hor konpon!

Galdetzen duten lehena, ene bada!
Galdetzen duten lehena, txin pun.
izor hadi nagusi eta atera
arinoa, ogia, lukainka, xingarra...
ta hor konpon!

Non egiten du lo neskatxak? Ene bada!
Eta neskarik ez badu, txin pun,
izor hadi nagusi eta atera
arinoa, ogia, lukainka, xingarra...
ta hor konpon!

Non egiten du lo andereak? Ene bada!

Eta andererik ez badu, txin pun.

izor hadi nagusi eta atera

arinoa, ogia, lukainka, xingarra...

ta hor konpon!

Non egiten du lo apaizak? Ene bada!

Eta apaiz jaunik ez bada, txin pun,

izor hadi nagusi eta atera

arinoa, ogia, lukainka, xingarra...

ta hor konpon!

Pikutara ostatua! Ene bada!

Olentzero Iruñean

1.- Eki zaharra badoa,
bidea bidean,
neguburua dugu
laster gure artean.

2.- Ikatz txondorra utzita,
Iruñea aldera
ttipi-ttapa badoa
sua eramatera.

3.- Karriketan barrena
sartu da Iruñean,
laster izanen dugu
gure herriko plazan.

4.- Nafarroaren ametsa,
Euskal Herriarena,
zoriona, osasuna
eta askatasuna.

5.- Eguzki zaharra joan da
ta berria sortu,
neguko elurra heldu da,
mara-mara ari du.

6.- Etxeak ta karririk
elur zuri azpian,
Nafarroaren ametsa
gure bihotzean.

Doinua: Olentzero joan zaigu

Pausu Gaua Karrikaldia

Itxaropenezko gogoeta

- Bada auzategi bat
ibaiarekin ezkondua dena.
Hori da Pausu, gure habia,
eta Bidasoa ederra du ezkontide.
Ibaiak ez du banatzen,
ibaiak alde bateko eta besteko euskaldunak
elkartzen ditu bere aldeetan, bere altzoan,
eta zubia du pasagune eta elkarbide.
Amodiozko istorioa dugu, beraz.

- Bidasoa, Pausu,
Pausu, Bidasoa,
Behobia, Irun, Urruña,
Lapurdi, Gipuzkoa eta Nafarroa
ditugu gure katebegan,
Euskal Herri osoaren
bidegurutze eta ibian.

- Kate zahar-zaharra dugu,
nehoiz hautsi ez dena,
lamina, sorgin eta Tartaloren
begiradapean hazitu dena,
mendi, soro eta pentze,
ur murmurioetan kantatzen duena.

- Iragan zaharreko itzala,
oraingo neska-mutilak,
gizon eta emazteak,
etorkizuneko kantu ozen eta alaia.

Hauxe da Pausu,
Bidasoaren maitalea,
gaur karrikaz karrika
dabilen txori kantaria.

- Mari jainkosak babes dezan
eta bere altzoan dezan atxiki,
izan dena izan dadila betiko,
elkarrekin bizi izan direnek
elkarrekin jarrai dezaten geroan.

- Bidasoa eta Pausu,
Pausu eta Bidasoa,
elkarbidean izan daiten
euskal lur gainean,
Euskal Herriko bazter hauetan.
Atzo izan zena gaur bada,
eta gaur dena bihar ere izanen da.
Hauxe da gure itxaropena!
Halabiz!

Pausu, 2020ko apirila
(Txinako sukarra zela eta, bertan behera gelditu zen)

Pepita Sein, Txenpeneko izarra

Gerlako burrunbetan haurra,
suak Irun kixkali zuelarik
zure begiek sugarren argia zuten atxiki.
Txenpenen jaiotako izarra,
Atxular eta Txenpeneko odola zainetan zuena,
gerla ondoko haurtzaro gogorren hazia eta hezia.

Horrela zen,
horrela bizi behar
eta horrela hazi behar,
ukaziotik aitzina,
hutsetik abiatuta.
Horrela zen,
horrela bizi behar
eta horrela hazi behar.

Neska emakume zen bilakatu,
Ziburuko kontserberetan eta
Irungo poxpolo fabrikan lanean aritu.
Emakumea emazte zen bilakatu,
Anjel Arbelaitz mutilarekin ezkondu,
Labekoetxeko seme zena
zitzaion senar bihurtu.

Urteak igaro ahala,
emaztea zen ama bilakatu,
hiru alabaren ama,
hiru bideren abiapuntu.
Urteak joan eta urteak jin,

arazoak piztu, arazoak itzali,
pozak hartuz, tristurak ezin ahantziz,
ama zena bost aldiz zen amondu,
bost biloben amona bihurtuz.
Tamalez, segidan senarra eta
alabetako bat zituen galdu.

Beti gogorra izan zitzaion bizitza,
azken urteetan zertxobait zitzaion samurtu,
penak bazterrean utzi eta bizitzaz gozatu.
Orduan zitzaion Herio ustekabea agertu,
soingaineko beltzaz, eskuan sega zorrotza
eta azken hatsa zion deblauki lapurtu.

Zorigaitzekoa da
gehien ematen duenari
gehien kendu beharra.
Zorigaitzekoa da
bizitza maite zuenari
bat-batean bizitza ebatzi beharra.

Herio segadunak ez du barkatzen,
Balbek ez du inoren ametsa errespetatzen,
Aingeru Beltzak onenen bidea du tratatzen.

Justizia, bakea, begirunea...
hitz hutsalak, ipuin politak,
deusetarako balio ez dutenak.
Bizitza badoa
etengabeko uharkan,
bizitza badoa
mugagabeko ibaian.

Eta hortxe joan zen,
Heriok eraman zuen,
Pepita Sein Oliden,
Txenpeneko alaba,
Txenepeneko izarra.

Joan zen, utzi gintuen,
justiziarik ez zen izan
hainbeste jasan zuenarentzat.
Ados! Joan zen konformidadez betea,
halabeharrak horrela aginduta,
baina guk ezin zaitugu ahaztu,
ez dugu zure irria burutik kendu,
ez dugu zure oroitzapena ukatu.

Joan zinen
baina hemen zaitugu
gure artean betiko
euriaren negar malkoetan,
Irungo mendien zokoetan,
gure otoitz ixiletan.
Ez, Pepita Sein
ez zen izan edozein!⁹
Lore eder bat zuretzat,
Bihotzez, esker onez
eta ezin ahantziz.

Perlaren kantua

Ekialdeko kantu zahar-zaharra

Hiri Egipton dugun semeari,
Erregeen Errege den hire aitak,
Ekialdeko agintari den hire amak
eta erregeorde den hire anaiak
agur beroa damaiagu.

Iratzarri eta jaiki hadi hire lozorrotik;
eta hago erne gure gutuneko mezuarekin.

Oroit ezak nor haizen,
errege baten ondorengo,
eta begira ezak, lotura ilunez
noren zerbitzari habilen.

Oroit ezak Egiptora
perlaren gibeletik
joana haizela.

Oroit itzak hire jantzi dotoreak
eta hire tunika paregabea;
egun batez, jantzi horiek berriz
hire lepo gainean ezarririk
jantzi hazaten.

Horrela jantzirik hire izena
heroien liburuan ager dadin
eta halaber, hire anaia
erregeordearekin batera,
gure erresumako oinordeko
bilaka hadin.

Sorgin eta belargileak, ama-lurraren alabak

- Belargile,
belar ezagutzaile,
belarren bidez sendatzaile,
belarren bidez liluratzailer,
belarren bidez hiltzaile.

- Sorgin,
emagin,
sortzaile,
erditzen laguntzaile,
sortzen artisau eta piztaile.

- Emakume,
eme zen sortu,
eme zen hazi,
eme izan da betiro,
ama da erditzez bilakatu.

- Lurrak ditu sortu,
lurrak ditu ekarri,
lurrak ditu ernaldu,
lurrak ditu piztu,
emakume, sorgin, belargile.

- Botereak errotik ditu gorroto,
botereak ditu baztertu eta jazarri,
botereak ditu epaitu eta gaitzetsi,
botereak ditu erre eta kiskali,
emakume, sorgin, belargile.

- Zer gorrotatzen dute?

emetasuna?

amatasuna?

emankortasuna, ote?

edota, agian, hiruak batera???

- Zer jazartzen dute?

lurraren ezagutza?

lurretik eta lurrarentzat bizitzea?

lurrarekin bat egitea?

edota, agian, hiruak batera???

- Nor erretzen dute su-metan?

sorginak, belargileak?

emakumeak, emazteak?

emeak, emaginak, ama gazteak?

edota, agian hiruak batera???

- Zer erdietsi nahi dute?

gizarte patriarkala ezarri?

erlijio eta sinesmen berriak inposatu?

herria betiko esklabo bilakatu?

edota, agian, hiruak batera???

- Lurra, bizitza eta askatasuna

zinez gorroto dituzte,

legeak, dotrinak eta kateak

inposatu dizkigute,

sorginak, belargileak

su-metan erre dituzte,

baina nehoiz ez dute

askatasun-haizearen ufada baretuko,

eta nehoiz ez dute

lurraren harrabots ozena isilduko.

Suaren indarra

Nor zara? Nondik zatoz?
Non bizi da Izpiritu Goren hori?
Eta nola jolasten da
sortu dituen gauza ororekin?

Sua egurrean da,
baina, nork esnatzen du deblauki?
Gero errauts bihurtzen da,
nora doa suaren indarra?

Egiazko jakitunak
garbi darakuskigu
ez duela ez mugarik
eta ez mugagabetasunik.

Sua egurrean da,
baina, nork esnatzen du deblauki?
Gero errauts bihurtzen da,
nora doa suaren indarra?

Jakitunak badaki bere mintzaira
zehazten eta egokitzen
entzuten ari dena
mezuaren jabe egin dadin.

Sua zur barnean da,
baina, nork esnatzen du deblauki?
Gero errauts bihurtzen da,
nora doa suaren indarra?

Sugaar

Herensuge, Sugaar
udagoiena dugu zahar,
udazkena dezagun har!
Haizeak ufatu eta hostoak jausi,
aro berrian gaitezen sar!

Herensuge, Sugaar
biziaren sasi eta lar,
sukoia ortzian bakar
sua gailurretan, tximista zeruetan
eta pentzetan gar.

Herensuge, Sugaar
lurrean ikara eta dardar,
Amalur gaixoaren sukar,
urruneko eltzea urrez, bertakoa lurrez
hurbil zazpi eta urrun hamar.

Herensuge, Sugaar
gizakion urratsak baldar,
biziaren uhinetan zehar,
euskaldunon nahikari eta ametsetan
haziak lilia dakar.

Tafalla

Goizaldea denez zabaldu leihoak,
Makotxa, Balgorra, Larrain, Baldetina.
Unzueko Harria eta Zidakos
besarka ari dira eguna.
Gorria, zuria, mairua, euskalduna
Tafallak hartzen du arnasa.
Langilea, nekazaria, aldarrikatzailea,
Tafalla bizi bada, bizi da Euskal Herria.

Erriberry hegoan, gainean Baldorba,
Uxue, Artaxoa zein auzo ederrak!
Baskoien mintzaira bizi da gure lurretan:
ezpuendak, gardatxoak, bitxarrak, iraskoak...
zein airoso dabilen!
Ospetsua, umila, lorea, hazia
Tafalla argi badabil, argi dabil Euskal Herria.

Herri lurretan eta kortetan barrena
batzarrera deika kantatzen dute ezkilek.
Haren lagunekin zaldiz doa Radika,
gau hotzetako laguneroari
sua emateko.
Apala, duina, tarteka zauritua
Tafalla negarrez bada, negarrez ari da Euskal Herria.

Kolainoak bere Pepitari kanta diezaiola,
"Behera kintak!" dioten jotak entzun daitezela,
lau izkinetatik mutilek turuta jo dezatela,
aurorak irten eta txistuak eta errondak
koadrilan ibil daitezela.
Antzinakoa, gaztea, zurea eta nirea,
Tafallak kantatzen badu, kantatzen du Euskal Herriak.

Fermin Balentziaren kantuaren itzulpena.
Itzulpen hutsa da. Ez du balio kantatzeko.

Tokiotik barna

Erraldoien artean
erraldoienetakoa,
etxe-orratzez josia,
itsaso aitzineko habia,
Japonia berriaren ikurra.

Edo zaharra zena,
arrantzaleen txoko ttipia,
gaur Tokio dugu,
ekialdeko hiria,
inperioaren hiri buruzagia.

Enpresak, bulegoak,
dendak eta merkataritza guneak,
tradizioa eta teknologia,
jende presatu eta umila,
trajez jantziriko gizonak,
eskuan maleta, lepoan gorbata,
atorra zuria, galtza eta txaketa
beltz edo urdin ilunak,
zapata beltz punta luzekoak,
ainitzetan aurpegi maskaratuak.

Goizeko zortziak aldera
ehunka, milaka,
korrika eta presaka,
automaten antzera,
arimarik gabeak.
Alde batetik bestera dabilta,

presaturik, lantoki aldera,
bideak betez,
etxe-orratzen arteko
hodeiertza estaliz.

Emakumeak ere berdin,
kolore hitsez jantzita,
korrika eta presaka.

Kiatorako trenean ber gauza,
robotez betea,
telefono mugikorrez kalakan
edota ordenagailu eramangarriaz lan egiten.
Ez dute denborarik galtzen,
denbora eskasiak haiek ditu galtzen.

Egunez eta arratsaldez,
Ginza kaleko espaloiak
jendez mukuru,
ehunka, milaka,
alde batetik bestera,
ostatuetan oihuka, garrasika,
eta kale zabaletan barna
antxintxika,
suzirien antzera.

Nekea dute begitartean ageri,
batzuk lotan dira bazterretan,
besteak akiturik zigarreta errez
horretarako diren txokoetan.
Etxe-orratzak eta pagodak
dira nahasten Tokio miresgarrian.

Arratsean, neka-neka eginda,
ziraldoka dabilta,
hordiak ere nekez mugitzen dira.

Piztu dira jadanik neoizko argiak,
hizki japoniarrez idatziriko mezuak.
Zaindari unformatuak
zeremonia handiz txandatu dira
enperadorearen jauregi aitzinean.

Hau da Japonia,
hau da Tokio handia,
jaio berria den
eguzkiaren herria.
Ohaio eta konbaba agurtzeko,
arigato noiznahi eskertzeko,
buru makurraldi handiak eginez
begirunea adierazteko.

Jende gisakoa, jende abegikorra,
jende langile eta diziplinatua,
jainko eta jainkosen
jarraitzaile sutsu porrokatuak,
Buda gurtzen dutenak.
Japoniak badu bihotza,
Japoniak badu iragana,
Japoniak badu ongi merezitako geroa.

Uhinen mugimendua

Uhinen mugimendua,
egunez zein gauez,
itsasotik dator.
Zuk itsasoa dakusazu,
baina, hau bai bitxia!
Ez dakusazu itsasoa.

Atomo guztiak,
zori onekoak zein txarrekoak,
ekiaren inguruan dabilta,
arrunt maitemindurik.
Pertsonak ez gara maitemintzen
amodioak ez baitu gure arima pizten.

Egun batean, euriaren antzera,
jausiko dira
eta dena dute bustiko.
Haien misterioa
berde kolorez haziko da
mundu gainean.

Amodioaren bidea
ez da argudio argia.
Haren atea
hondamendia da.

Heriotzak bizitzaren mingotsari
amaiera dio ematen.
Haatik, bizitza da izutzen

heriotzaren aitzinean.
Bihotzaren edertasuna
edertasun iraunkorra da.

Haren ezpaineak
biziaren ura digute eskaintzen
edan dezagun.
Ura egiazkoa da,
baita isurtzen duena
eta edaten duena ere.

Itsasoak,
gauez eta egunez,
badu aparra.
Azal apartsua dakusazu
baina ez itsasoa.
Sinestezina!

Gure artean elkarrekiko talkan ari gara,
itsasontzien antzera.
Gure begiak ilunpean daude
nahiz eta ura gardena izan.
Gure txalupa den gorputzean lokarturik garela
itsasoko uretatik kanpo ari gara flotatzen.

Urak badu
daroan ura.
Izpirituak badu
deika ari zaion izpiritua.

Ura eta bizia

Gizaki guztiok
Jainkoaren zati gara
eta elkarrekin gara loturik.
Jainkoaren izpiritua
ur gainean zebilen,
eta gaur ere,
ur gainean ibiltzen darrai,
eta elkarrekin gaitu lotzen.
Uraren esanahiak
ardura eta onarpena,
kontzientzia zabal eta batua
dakartzkigu gogora.

Ezinezkoa da gure munduko
lur erreserbak babestea.
Ura ez da soilik
biziarazten gaituen gaia;
urak elkarrekin gaitu lotzen,
urak gure izatearekin gaitu lotzen,
urak gure sortzearekin gaitu estekatzen.
Uraren esanahiak
ardura eta onarpena,
kontzientzia zabal eta batua
dakartzkigu gogora.

Ura eta lehorra

Ura da gauza guztien bazka

baina ez haien jabea.

Ibai handiak eta itsasoa

ibar eta sakan guztien

erregeak dira.

Jaitsiz eta maitatuz

haran guztien errege

bilaka daitezke.

Ez da munduan

ura bezain goxo eta malgurik.

Urak badaki lehorra beratzen.

Ez da hoberik.

Malguak aurre dio hartzen zurrunari.

Goxoa lakarrari zaio gailentzen.

Orok dakigu hau dela egia,

baina gutxik ahal dute egiaztatu.

Taoa

Ur gaineko iratxoen kantua

Gizakiaren arima uraren antzekoa da:

goiko zeruetatik datorkigu lurrera

eta berriz, etengabeko dantzan,

lur elkor honetara itzultzeko.

Goiko harkaitzetatik, zarata handiaz,

datorkigu basa erreka,

bide malkartsuan darrai

beheko ibar aldera.

Bideko harriak aparrez ditu gailentzen,

ezartzen dioten harresia indarrez igaroz.

Eta behera doala, indartsu darrai,

zelai eta belazeak gibelean utzirik.

Eta gaua iristean, bere ispilu aratzean

ortzia janzten duten argizagiak dira islatzen.

Erreka uhinekin lehiatuz eta halaber maitatuz,

haize arina, goxoa, etena dator,

dena harrotzen, dena orrazten.

dena aparrez txirikordatzen.

Oi giza arima, uraren antzerakoa zara!

Oi giza patua, haizea diguzu gogora ekartzen!

Johann Wolfgang von Goethe

Urrundik

Urrundik badator
gurera kantari irrintzina,
amodioaren baitan,
Euskal Herriko erreketan,
bizi eta bertan kantan da ari.

Urrundik heldu da
etxera kantari irrintzina,
sentimenduen barnean,
Euskal Herriko mendietan,
dabil eta kantuz ari gainera.

Urrundik da etorri
gurera kantari irrintzina,
gure bizi-pozetan,
irauteko ahaleginetan,
gure baitan egin baitu kabi.

Urrundik da ageri
gure zeruetako izarra,
itxaropen guztietan,
bizitzeko grina sutsuetan,
kantari dabil gure sugarra.

Urtaroak Euskal Herrian

1.- Neguburuan sortu izan da beti
eguzki berria, Eguberria,
neguko azken egunetan
hil ohi den eguzki zahar hotza ordeztuz.
Olentzero ere hor dabil eki berria agurtuz,
hortik aitzina inaute da,
lurraren iratzartze berria eskatuz eta amestuz
iragaten den aldi luze eta hitsa.
Hartza ere lo da, neguloan, ama-lurraren kolkoan.
Euskal Herria da hotzez eta zuriz jantzia.

2.- Udaberriko ekinozioan lurra esnatu zaigu,
bedatsea iritsi da, belarraren lehen hatsa,
liliak dira nonahi, kolorez kantari,
pinpirinak haien gainetik dantzan,
erleak ere beti mintzo, beti lanean,
zuhaitzetan orriak eta hostoak dira agertzen,
musker kolorez jantziak.
Euskal Herria da argiz eta berdez jantzia.

3.- Udaburuan eguzkiak zeruko goia du jotzen,
zeru-bide luzeko gailurra du ferekatzen.
Udagoiena da, beroaren erresuma,
Ama-lurra goxo eta erne dago, ernai.
Sugarrak dira udaburuko gauean nagusi,
Sorginak dira kantari eta
ontzak eta mozoloak uluka kantari.
Mendi gailurretan euskaldunak
suaren inguruan alai eta kalakari.
Mari jainkosak Putterritik Anbotora doa
eskuan duen igitaiaz hodeiak irekiz,

euria ekarriz eta izadia bedeinkatuz.

Euskal Herria da beroz eta gorritz jantzia.

4.- Udazkeneko ekinozioan

Sugaar da errege, jaun eta nagusi,
zeruetako bidezidorretatik barna dabil

suzko sugea, sugoia, suge handia,

burrunbaz, argiz eta beldurraz,

iurtziriz, ximistaz eta orziaz

mendi, soro, herri eta oihanak astinduz.

Herensugea aske dabil, jare, libre...

orbel hori-gorrixkaz beteriko bide

eta mendietatik barrena,

zeruetako izarrak dir-dir ari dira,

ilargia sugarren goritasunaz da tindatzen,

zuhaitzak dira hostoz biluzten,

lurra da emankortasunez urritzen,

eguzki hotza, Ekihotz, dugu azken hatsetan.

Eguzkia hiltzear da, lurak bere indarra du galdu,

urtea azken muturrera ari zaigu iristen.

Negu, Egu badator berriz ere,

etengabeko gurpila ari zaigu jira-biraka,

eguzki berria sortuko da, berriz piztuko da

eta euskaldunek bizimodu berriari ekinen diote.

Euskal Herria da orbelaz eta hori-gorrixkaz jantzia.

5.- Urtaroek urtearen etengabeko gurpila dute osatzen,

Euskal Herri zahar berriaren bizia,

hil nahi ez duen aberriaren itxaropen gartsu eta eztia,

betiko horrela iraun nahi duen ama-lurraren

amets eder, sutsu eta argia.

Utzi irteten ilargia

- Utzi irteten ilargia, lotara joaten euzkia
ta orduan esango dizut, bi kontutxo, maitia!
Utzi izarrak zeruan, utzi gaua bakean
ta orduan maitako zaitut, bihotz handiaz, maitia!

- Ongi dakizu maitia, ene bihotza zurea da
eta egunak pasata, zureagoa izanen da.
Ongi dakizu maitia, ene bihotza zurea da
eta egunak pasata, zureagoa izanen da.

- Zure besotan izanik, zorionean nago ni,
nere bizitza osoa, zuri ematen dizut nik,
nere bizitza osoa, zuri ematen dizut nik.

- Utzi irteten ilargia!!!

Gure aita zenaren oroitzapenez.

Egilea: Jose Alfredo Jimenez

Kantaria: Pedro Infante

Xaia 100 urte

Gure amets galduen etengabeko gaia,
urteetan izan, izaten eta izanen dena,
Euskal Herria aztertzeke Pausuko talaia
arrunt amultsu eta paregabea,
bihotz eta arima arras alaia
duen ostatu, aterpe eta biltokia,
ehun urtetan izan dugun kaia,
beste ehun urtetan bizi dadin Xaia.

Ximiko

1.- Urruñako Amalur-baitako lurretan,
pikondo eder baten gerizpe goxoan,
hantxe bazen hilobi bat
ta oraindino hortxe dago,
Ximikorena da,
Ximikorena da.

2.- Ttiki-ttikitatik bertara etorria,
etxekoen lagun ta zaindari handia,
jostatzeko beti pronto,
pixkor eta beti alai,
Ximiko ttikia,
Ximiko ttikia.

3.- Gogotik maite genuen bertako guztiok,
bat gehiago baitzen gu denon artean,
Larrun eta Mendaur ere
igo zittun, poz handiaz,
Ximiko politak,
Ximiko politak.

4.- Etxeko jaunarekin Sokorri aldera,
abantzu egunero joaten zen bertara,
belaze eta oihanetan
pozik ta alai, zebilen han,
tentetuz buztana,
tentetuz buztana.

5.- Euskara ulertzeko ez zuen arazorik,

hitz guztien jabe baitzen xiurrenik,
erantzuteko beti prest,
laguntzeko eskuzabal,
beti alegera,
beti alegera.

6.- Eritasun gaizto batek zuen kolpatu
ta mundu honetatik betiko urrundu,
hoixe nahigabe handia,
pena eta hutsunea
gure bihotzetan!
gure bihotzetan!

7.- Hortik aitzina beti daukagu gogoan,
berak betetzen baitzizkigun egunak,
berriz noiz ikusiko haugu
belardietan, bazterretan?
Ximiko polita,
gure poxpolina!

Gure poxpolina!

Doinua: Lili Marleen

Xirimiria

Euri lasai eta triste hau,
minez den haurraren antzera,
lurra ukitu aitzin
arras ahultzen da.

Zuhaitza geldi-geldirik dago,
haizeak ez du ufatzen,
eta isiltasun handi horretan
xirimiria etengabe ari du.

Zeruak zabaltzen ari zaigun
bihotz handi baten itxura du.
Ez du erauntsirik botatzen,
odoluste luze-luzea da.

Etxe barneko goxoan
gizon-emakumeek ez dute
goitik doakien xirimiri lasai tristea
abantzu entzuten.

Etxe barnean egonik,
ia ez dute zeruetako
ur emaria
inolaz ere sumatzen.

Euria ari du
eta mendietan
gaua zelatan dago.
Zer emanen digu ama-lurrak?

Etxe barnean loak harturik zarete,
anartean, xirimiria ari du,
mantso, lasai, hits, triste...
heriotzaren ahizpa dugu.

Gabriela Mistral Alkaiaga (1889-1957)

Zuhaitza

1.- Oihanetako zutabe,
biziaren adierazle,
arnasarako laguntzaile,
gure sentimenduen hartzaile.

2.- Zure gerizpean
aldarrikatu ditugu gerlak,
hitzartu ditugu bakeak,
eta egin ditugu legeak.

3.- Ilargi beteko gauetan
eskaintzak egin dizkiogu Mariri
zure adar sarearen azpian,
gure ezpatak altxatuz gauari.

4.- Eguzki handiko egunetan,
babesa eman diguzu,
berotasuna apalduz,
gure odola berrituz.

5.- Oi Euskal Herriko zuhaitzak!
euskaldunen artean miresgarriak,
ama-lurrak eskaintzen digun altxorra,
inoiz sobera eskertuko dugun oparia.

6.- Zuhaitza, zurezko haitza?
bizi-indar gaitza.
Zuhaitza, lurraren emaitza?
euskal lurrak oldartzen dituen ekaitza.